Cuando dichos hechos pudieran constituir una infracción administrativa, recogerán la fecha de su comisión y, cuando sea posible, la identificación de los presuntos responsables.

3. Cuando la denuncia invocara un perjuicio en el patrimonio de las Administraciones Públicas la no

hastea arrazoitu egin beharko da, eta salatzaileei jakinarazi beharko zaie prozedura hasteko edo ez hasteko erabakia.

4. Salatzaileak parte hartu badu halako arau-hausteren batean, eta tartean beste arau-hausle batzuk baldin badira, prozedura ebazteko eskumena duen organoak salbuetsi egin beharko du salatzailea legokiokeen isuna ordaintzetik edo diruzkoa ez den beste zehapenen batetik, salatzailea bera baldin bada prozedura hasteko edo arau-haustea egiaztatzeko froga-elementuak ekartzen dituen lehena, betiere elementu horien berri emateko unean ez bada daturik aski zehapen hori agintzeko eta egindako kaltea konpontzen bada.

Halaber, ebazteko eskumena duen organoak gutxitu egin beharko du legokiokeen isunaren zenbatekoa edo, halakorik bada, diruzkoa ez den zehapena, baldin eta, aurreko baldintzetako bat betetzen ez delarik, salatzaileak froga-elementu batzuk aurkezten baditu lehendik daudenen aldean balio erantsi adierazgarria dutenak.

Bi kasuetan, beharrezkoa da salatzaileak arau-haustean parte hartzeari utzi izana eta salaketaren xedearekin lotutako froga-elementurik ez desegin izana.

5. Salaketa bat aurkezteak ez du inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen prozeduran.

63. artikulua. Zehapen-prozeduren hasierako berezitasunak.

1. Zehapen-prozedurak ofizioz hasiko dira beti, organo eskudunaren ekimenez, eta behar den bezala bereiziko dira haietan instrukzio-fasea eta zehapen-fasea; organo banaren esku utziko dira bata eta bestea.

Organo bat prozedura bat hasteko eskudun dela joko da hala xedatzen badute hura erregulatzen duten arauek.

2. Inoiz ezin da zehapenik ezarri dagokion prozedura izapidetu gabe.

3. Ezin da zehapen-prozedura berririk hasi arau-hausleak behin eta berriz egiten dituen eta arau-hauste gisa tipifikatuta dauden gertaera eta jokaerengatik, artean ez bada eman lehenbiziko ebazpen zehatzaile bat, betearazpen-indarrekoa.

iniciación del procedimiento deberá ser motivada y se notificará a los denunciantes la decisión de si se ha iniciado o no el procedimiento.

4. Cuando el denunciante haya participado en la comisión de una infracción de esta naturaleza y existan otros infractores, el órgano competente para resolver el procedimiento deberá eximir al denunciante del pago de la multa que le correspondería u otro tipo de sanción de carácter no pecuniario, cuando sea el primero en aportar elementos de prueba que permitan iniciar el procedimiento o comprobar la infracción, siempre y cuando en el momento de aportarse aquellos no se disponga de elementos suficientes para ordenar la misma y se repare el perjuicio causado.

Asimismo, el órgano competente para resolver deberá reducir el importe del pago de la multa que le correspondería o, en su caso, la sanción de carácter no pecuniario, cuando no cumpliéndose alguna de las condiciones anteriores, el denunciante facilite elementos de prueba que aporten un valor añadido significativo respecto de aquellos de los que se disponga.

En ambos casos será necesario que el denunciante cese en la participación de la infracción y no haya destruido elementos de prueba relacionados con el objeto de la denuncia.

5. La presentación de una denuncia no confiere, por sí sola, la condición de interesado en el procedimiento.

Artículo 63. Especialidades en el inicio de los procedimientos de naturaleza sancionadora.

1. Los procedimientos de naturaleza sancionadora se iniciarán siempre de oficio por acuerdo del órgano competente y establecerán la debida separación entre la fase instructora y la sancionadora, que se encomendará a órganos distintos.

Se considerará que un órgano es competente para iniciar el procedimiento cuando así lo determinen las normas reguladoras del mismo.

2. En ningún caso se podrá imponer una sanción sin que se haya tramitado el oportuno procedimiento.

3. No se podrán iniciar nuevos procedimientos de carácter sancionador por hechos o conductas tipificadas como infracciones en cuya comisión el infractor persista de forma continuada, en tanto no haya recaído una primera resolución sancionadora, con carácter ejecutivo.

64. artikulua. Zehapen-prozedurak hasteko erabakia.

1. Hasteko erabakia prozeduraren instrukzio-egileari komunikatuko zaio, hari buruz dauden jarduketa guztiak helaraztearekin batera, eta interesdunei jakinaraziko zaie, beti halakotzat harturik erruztatua.

Era berean, hasieraren berri emango zaio salatzaileari, prozedura erregulatzen duten arauek hala aurreikusten dutenean.

2. Prozedura hasteko erabakiak honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

a) Nor den edo diren ustezko erantzule.

b) Zer egitatek eragin duten prozedura hastea, zer kalifikazio izan lezaketen eta zer zehapen legozkiekeen, hargatik eragotzi gabe instrukziotik ondorioztatzen dena.

c) Nor den prozeduraren instrukzio-egilea, eta, halakorik baldin bada, idazkaria, espresuki adierazirik haien errekusazio-araubidea.

d) Zer organo den prozedura ebazteko eskudun, eta zer arauk esleitzen dion eskumen hori. Adierazi behar da ustezko erantzuleak baduela aukera borondatez bere erantzukizuna aitortzeko, 85. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

e) Zer behin-behineko neurri erabaki dituen zehapen-prozedura hasteko eskumena duen organoak, hargatik eragotzi gabe prozeduran zehar 56. artikuluaren arabera har daitezkeenak.

f) Adieraziko da alegazioak egiteko eskubidea eta prozeduran entzuna izateko eskubidea badela, eta haiek baliatzeko zer epe dauden; orobat ohartaraziko da ezen, prozedura hasteko erabakiaren edukiaz aurreikusitako epean alegaziorik egin ezean, erabaki hori ebazpen-proposamentzat hartu ahal izango dela egotzitako erantzukizunari buruzko pronuntziamendu zehatz bat duenean.

3. Salbuespen moduan, prozedura hasteko erabakia hartzeko unean ez bada elementu nahikorik prozedura hastea eragiten duten egitateen hasierako kalifikazioa emateko, geroagoko fase batean egin ahal izango da

Artículo 64. Acuerdo de iniciación en los procedimientos de naturaleza sancionadora.

1. El acuerdo de iniciación se comunicará al instructor del procedimiento, con traslado de cuantas actuaciones existan al respecto, y se notificará a los interesados, entendiendo en todo caso por tal al inculpado.

Asimismo, la incoación se comunicará al denunciante cuando las normas reguladoras del procedimiento así lo prevean.

2. El acuerdo de iniciación deberá contener al menos:

a) Identificación de la persona o personas presuntamente responsables.

b) Los hechos que motivan la incoación del procedimiento, su posible calificación y las sanciones que pudieran corresponder, sin perjuicio de lo que resulte de la instrucción.

c) Identificación del instructor y, en su caso, Secretario del procedimiento, con expresa indicación del régimen de recusación de los mismos.

d) Órgano competente para la resolución del procedimiento y norma que le atribuya tal competencia, indicando la posibilidad de que el presunto responsable pueda reconocer voluntariamente su responsabilidad, con los efectos previstos en el artículo 85.

e) Medidas de carácter provisional que se hayan acordado por el órgano competente para iniciar el procedimiento sancionador, sin perjuicio de las que se puedan adoptar durante el mismo de conformidad con el artículo 56.

f) Indicación del derecho a formular alegaciones y a la audiencia en el procedimiento y de los plazos para su ejercicio, así como indicación de que, en caso de no efectuar alegaciones en el plazo previsto sobre el contenido del acuerdo de iniciación, éste podrá ser considerado propuesta de resolución cuando contenga un pronunciamiento preciso acerca de la responsabilidad imputada.

3. Excepcionalmente, cuando en el momento de dictar el acuerdo de iniciación no existan elementos suficientes para la calificación inicial de los hechos que motivan la incoación del procedimiento, la citada calificación podrá realizarse en una fase

kalifikazio hori, kargu-orri baten bitartez, eta interesdunei jakinarazi.

posterior mediante la elaboración de un Pliego de cargos, que deberá ser notificado a los interesados.

65. artikulua. Ondare-erantzukizunari buruzko prozeduren ofiziozko hasierako berezitasunak.

Artículo 65. Especialidades en el inicio de oficio de los procedimientos de responsabilidad patrimonial.

1. Administrazio publikoek ondare-erantzukizuneko prozedura bat ofizioz hastea erabakitzen dutenean, beharrezkoa da ez preskribatuta egotea interesdunaren erreklamaziorako eskubidea, 67. artikuluan aipatua.

1. Cuando las Administraciones Públicas decidan iniciar de oficio un procedimiento de responsabilidad patrimonial será necesario que no haya prescrito el derecho a la reclamación del interesado al que se refiere el artículo 67.

2. Prozedura hasteko erabakia jakinarazi behar zaie ustez kaltetuak diren partikularrei, eta hamar eguneko epe bat eman, eskubidez egoki deritzeten alegazio, dokumentu edo informazio guztiak azal ditzaten eta eskubide hori aitortzeko behar diren froga guztiak proposa ditzaten.

2. El acuerdo de iniciación del procedimiento se notificará a los particulares presuntamente lesionados, concediéndoles un plazo de diez días para que aporten cuantas alegaciones, documentos o información estimen conveniente a su derecho y propongan cuantas pruebas sean pertinentes para el reconocimiento del mismo.

Hasitako prozedura instruitu egingo da ustez kaltetuak diren partikularrak epean pertsonatzen ez badira ere.

El procedimiento iniciado se instruirá aunque los particulares presuntamente lesionados no se personen en el plazo establecido.

3. atala Prozedura interesdunak eskaturik hastea

Sección 3.ª Inicio del procedimiento a solicitud del interesado

66. artikulua. Prozedura hasteko eskaerak.

Artículo 66. Solicitudes de iniciación.

1. Eskaeretan honako hauek adierazi behar dira:

1. Las solicitudes que se formulen deberán contener:

a) Interesdunaren izen-abizenak eta, halakorik izanez gero, ordezkariarenak.

a) Nombre y apellidos del interesado y, en su caso, de la persona que lo represente.

b) Zer bitarteko elektronikoren bidez edo, bestela, zer lekutan nahi duen jakinarazpena egitea.

b) Identificación del medio electrónico, o en su defecto, lugar físico en que desea que se practique la notificación.

Horrez gain, interesdunek beren posta elektronikoaren edo gailu elektronikoaren helbidea eman ahal izango dute, administrazio publikoek abisa diezaieten jakinarazpena bidali edo eskura jarri dela.

Adicionalmente, los interesados podrán aportar su dirección de correo electrónico y/o dispositivo electrónico con el fin de que las Administraciones Públicas les avisen del envío o puesta a disposición de la notificación.

c) Egitateak, arrazoiak eta eskaera zehatza, argi eta garbi adierazirik.

c) Hechos, razones y petición en que se concrete, con toda claridad, la solicitud.

d) Lekua eta data.

d) Lugar y fecha.

e) Eskatzailearen sinadura, edo benetan bere borondatea adierazi duela erakusteko edozein eratako egiaztapena.

e) Firma del solicitante o acreditación de la autenticidad de su voluntad expresada por cualquier medio.

f) Administrazioko zer organo, erakunde edo unitateri bidaltzen zaion eskaera, eta zein den haren identifikazio-kodea.

f) Órgano, centro o unidad administrativa a la que se dirige y su correspondiente código de identificación.

Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak behartuta daude interesdunari identifikazio-kodea ematera, interesdunak ez badaki zein den.

Las oficinas de asistencia en materia de registros estarán obligadas a facilitar a los interesados el código de identificación si el interesado lo desconoce.

Indarrean diren identifikazio-kodeen zerrenda bat mantendu eta eguneratu beharko dute administrazio publikoek, dagokion egoitza elektronikoan.

Asimismo, las Administraciones Públicas deberán mantener y actualizar en la sede electrónica correspondiente un listado con los códigos de identificación vigentes.

2. Pertsona-multzo baten uziak, eduki eta oinarri bera edo mamiz antzekoa badute, eskaera berean aurkez daitezke, non eta prozedura espezifikoetako arauek besterik ez dioten.

2. Cuando las pretensiones correspondientes a una pluralidad de personas tengan un contenido y fundamento idéntico o sustancialmente similar, podrán ser formuladas en una única solicitud, salvo que las normas reguladoras de los procedimientos específicos dispongan otra cosa.

3. Elektronikoki edo Administrazioak erregistro-gaietan laguntzeko dituen bulegoetan aurkezten dituzten eskaera, komunikazio eta idazkien jaso-agiria eskatu ahal izango dute interesdunek, aurkezpen-data eta ordua egiaztatzen dituena.

3. De las solicitudes, comunicaciones y escritos que presenten los interesados electrónicamente o en las oficinas de asistencia en materia de registros de la Administración, podrán éstos exigir el correspondiente recibo que acredite la fecha y hora de presentación.

4. Eskaera-multzoak aurkezteko ereduak eta sistemak prestatu beharko dituzte administrazio publikoek, interesdunek aukera izan dezaten aldi berean eskaera bat baino gehiago aurkezteko.

4. Las Administraciones Públicas deberán establecer modelos y sistemas de presentación masiva que permitan a los interesados presentar simultáneamente varias solicitudes.

Eredu horiek borondatezkoak izango dira, eta interesdunen esku egongo dira dagozkien egoitza elektronikoetan eta administrazio publikoek erregistro-gaietan laguntzeko dituzten bulegoetan.

Estos modelos, de uso voluntario, estarán a disposición de los interesados en las correspondientes sedes electrónicas y en las oficinas de asistencia en materia de registros de las Administraciones Públicas.

Eskatzaileek nahi adina datu erants dezakete eskaera-ereduan jasotakoak zehazteko eta osatzeko, eta organo hartzaileak onartu eta kontuan izan behar ditu.

Los solicitantes podrán acompañar los elementos que estimen convenientes para precisar o completar los datos del modelo, los cuales deberán ser admitidos y tenidos en cuenta por el órgano al que se dirijan.

5. Eskaera-sistema normalizatuek modua eskain dezakete ematen den informazioa automatikoki egiaztatzeko administrazio horren beraren edo beste administrazio batzuen sistemetan biltegiratutako datuekin, edo formularioa guztiz edo partez beterik eskain dezakete, interesdunak informazioa egiazta dezan edo, hala badagokio, alda eta osa dezan.

5. Los sistemas normalizados de solicitud podrán incluir comprobaciones automáticas de la información aportada respecto de datos almacenados en sistemas propios o pertenecientes a otras Administraciones u ofrecer el formulario cumplimentado, en todo o en parte, con objeto de que el interesado verifique la información y, en su caso, la modifique y complete.

6. Prozedura jakin batean Administrazioak espresuki ezartzen baditu eredu espezifiko batzuk eskaerak aurkezteko, interesdunek nahitaez erabili beharko dituzte eredu horiek.

6. Cuando la Administración en un procedimiento concreto establezca expresamente modelos específicos de presentación de solicitudes, éstos serán de uso obligatorio por los interesados.

67. artikulua. Ondare-erantzukizuneko prozedurak hasteko eskaerak.

Artículo 67. Solicitudes de iniciación en los procedimientos de responsabilidad patrimonial.

1. Erreklamatzeko eskubidea preskribatu gabe dutenean bakarrik eskatu ahal izango dute interesdunek ondare-erantzukizuneko prozedura hastea.

1. Los interesados sólo podrán solicitar el inicio de un procedimiento de responsabilidad patrimonial, cuando no haya prescrito su derecho a reclamar.

Erreklamazioa egiteko eskubideak urtebeteren buruan preskribatuko du, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu zirenetik aurrera.

El derecho a reclamar prescribirá al año de producido el hecho o el acto que motive la indemnización o se manifieste su efecto lesivo.

Pertsonei kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, sendatzen direnetik edo kalte horien ondorioak zehazten diren egunetik hasiko da zenbatzen epea.

En caso de daños de carácter físico o psíquico a las personas, el plazo empezará a computarse desde la curación o la determinación del alcance de las secuelas.

Administrazio-bidean edo administrazioarekiko auzien bidean egintza edo xedapen orokor bat deuseztatu delako kalte-ordain bat aitortzea dagokion kasuetan, erreklamatzeko eskubideak urtebeteren buruan preskribatuko du, administrazio-ebazpena edo behin betiko epaia jakinarazten denetik aurrera zenbatuta.

En los casos en que proceda reconocer derecho a indemnización por anulación en vía administrativa o contencioso-administrativa de un acto o disposición de carácter general, el derecho a reclamar prescribirá al año de haberse notificado la resolución administrativa o la sentencia definitiva.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 32. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan aipatzen diren ondare-erantzukizuneko kasuetan, erreklamatzeko eskubideak urtebeteren buruan preskribatuko du, araua Konstituzioaren kontrako edo Europar Batasuneko zuzenbidearen kontrako deklaratzen duen epaia Estatuko Aldizkari Ofizialean edo Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean —zer dagokion— argitaratzen denetik aurrera.

En los casos de responsabilidad patrimonial a que se refiere el artículo 32, apartados 4 y 5, de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, el derecho a reclamar prescribirá al año de la publicación en el «Boletín Oficial del Estado» o en el «Diario Oficial de la Unión Europea», según el caso, de la sentencia que declare la inconstitucionalidad de la norma o su carácter contrario al Derecho de la Unión Europea.

2. 66. artikuluan aurreikusitakoaz gainera, interesdunen eskaeran zehaztu beharko da zer kalte gertatu diren, zer kausa-lotura dagoen haien eta zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren artean, ondare-erantzukizunaren ebaluazio ekonomikoa, ahal bada, eta zer unetan gertatu zen egiazki kaltea; horrekin batera adieraziko dira egoki iritzitako alegazio, dokumentu eta informazio guztiak, eta froga proposatuko da, erreklamatzaileak baliatu asmo dituen bitartekoak aipatuz.

2. Además de lo previsto en el artículo 66, en la solicitud que realicen los interesados se deberán especificar las lesiones producidas, la presunta relación de causalidad entre éstas y el funcionamiento del servicio público, la evaluación económica de la responsabilidad patrimonial, si fuera posible, y el momento en que la lesión efectivamente se produjo, e irá acompañada de cuantas alegaciones, documentos e informaciones se estimen oportunos y de la proposición de prueba, concretando los medios de que pretenda valerse el reclamante.

68. artikulua. Eskaera zuzendu eta hobetzea.

Artículo 68. Subsanación y mejora de la solicitud.

1. Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen 66. artikuluko betekizunak eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den legeria espezifikoan eskatutako beste batzuk, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako

1. Si la solicitud de iniciación no reúne los requisitos que señala el artículo 66, y, en su caso, los que señala el artículo 67 u otros exigidos por la legislación específica aplicable, se requerirá al interesado para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21.

ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

2. Hautaketa-prozesuetan edo lehia-konkurrentziako prozeduretan izan ezik, hamar eguneko epe hori luza daiteke zuhurtasunez, beste bost eguneraino, interesdunak eskaturik edo organoaren ekimenez, dokumentuak aurkezteko zailtasun berezirik baldin bada.

2. Siempre que no se trate de procedimientos selectivos o de concurrencia competitiva, este plazo podrá ser ampliado prudencialmente, hasta cinco días, a petición del interesado o a iniciativa del órgano, cuando la aportación de los documentos requeridos presente dificultades especiales.

3. Interesdunek eskaturik hasitako prozeduretan, eskaeran jasotakoa borondatez aldatzeko edo hobetzeko eska diezaioke eskumena duen organoak eskatzaileari.

3. En los procedimientos iniciados a solicitud de los interesados, el órgano competente podrá recabar del solicitante la modificación o mejora voluntarias de los términos de aquélla.

Horren akta jasoko da, labur, eta prozedurari gehitu.

De ello se levantará acta sucinta, que se incorporará al procedimiento.

4. 14.2 eta 14.3 artikuluetan aipatzen diren subjektuetako batek aurrez aurre aurkezten badu eskaera, aurkezpen elektronikoaren bitartez zuzen dezala eskatuko diote administrazio publikoek interesdunari.

4. Si alguno de los sujetos a los que hace referencia el artículo 14.2 y 14.3 presenta su solicitud presencialmente, las Administraciones Públicas requerirán al interesado para que la subsane a través de su presentación electrónica.

Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

A estos efectos, se considerará como fecha de presentación de la solicitud aquella en la que haya sido realizada la subsanación.

69. artikulua. Erantzukizunpeko adierazpena eta komunikazioa.

Artículo 69. Declaración responsable y comunicación.

1. Lege honen ondorioetarako, erantzukizunpeko adierazpena da interesdunak sinatutako dokumentu bat zeinean adierazten baitu, bere erantzukizunaren pean, betetzen dituela indarrean den araudiak eskubide edo ahalmen bat aitortzeko edo hura baliatzeko ezarritako betekizunak, baduela hori egiaztatzen duen dokumentazioa, Administrazioaren esku jarriko duela hark hala eskatzen dionean, eta konpromisoa hartzen duela aurreko betebehar horiek betetzeko, aitorpen edo baliatze horri dagokion denbora guztian.

1. A los efectos de esta Ley, se entenderá por declaración responsable el documento suscrito por un interesado en el que éste manifiesta, bajo su responsabilidad, que cumple con los requisitos establecidos en la normativa vigente para obtener el reconocimiento de un derecho o facultad o para su ejercicio, que dispone de la documentación que así lo acredita, que la pondrá a disposición de la Administración cuando le sea requerida, y que se compromete a mantener el cumplimiento de las anteriores obligaciones durante el período de tiempo inherente a dicho reconocimiento o ejercicio.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren betekizunek espresuki jasota egon behar dute, argi eta zehatz, dagokion erantzukizunpeko adierazpenean.

Los requisitos a los que se refiere el párrafo anterior deberán estar recogidos de manera expresa, clara y precisa en la correspondiente declaración responsable.

Administrazioek noiznahi eskatu ahal izango dute aipatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa emateko, eta interesdunak eman egin beharko du.

Las Administraciones podrán requerir en cualquier momento que se aporte la documentación que acredite el cumplimiento de los mencionados requisitos y el interesado deberá aportarla.

2. Lege honen ondorioetarako, komunikazioa da dokumentu bat zeinaren bitartez interesdunek administrazio publiko eskudunari jakinarazten baitizkiote beren identifikazio-datuak edo jarduera bat hasteko edo eskubide bat baliatzeko esanguratsua den beste edozein datu.

2. A los efectos de esta Ley, se entenderá por comunicación aquel documento mediante el que los interesados ponen en conocimiento de la Administración Pública competente sus datos identificativos o cualquier otro dato relevante para el inicio de una actividad o el ejercicio de un derecho.

3. Erantzukizunpeko adierazpenek eta komunikazioek aukera emango dute aurkezten diren egunetik aurrera eskubide bat aitortzeko edo baliatzeko edo jarduera bat hasteko, hargatik eragotzi gabe administrazio publikoek esleituak dituzten egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak.

3. Las declaraciones responsables y las comunicaciones permitirán el reconocimiento o ejercicio de un derecho o bien el inicio de una actividad, desde el día de su presentación, sin perjuicio de las facultades de comprobación, control e inspección que tengan atribuidas las Administraciones Públicas.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, jarduera hasi ondorengo epe batean ere aurkeztu ahal izango da komunikazioa, dagokion legeriak hala aurreikusten badu espresuki.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, la comunicación podrá presentarse dentro de un plazo posterior al inicio de la actividad cuando la legislación correspondiente lo prevea expresamente.

4. Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena edo deklaratzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

4. La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar.

Halaber, gorabehera horiek gertatu direla deklaratze aldera administrazio publikoak ematen duen ebazpenak xedatu ahal izango du interesduna behartuta dagoela egoera juridikoa leheneratzera eskubidea aitortu edo baliatu edo jarduera hasi aurreko unera, eta ezinezkoa dela xede bereko beste prozedura bat hastea legeak zehaztutako epe batean; hori guztia, aplikatzekoak diren arau sektorialetan ezarritako moduan.

Asimismo, la resolución de la Administración Pública que declare tales circunstancias podrá determinar la obligación del interesado de restituir la situación jurídica al momento previo al reconocimiento o al ejercicio del derecho o al inicio de la actividad correspondiente, así como la imposibilidad de instar un nuevo procedimiento con el mismo objeto durante un período de tiempo determinado por la ley, todo ello conforme a los términos establecidos en las normas sectoriales de aplicación.

5. Administrazio publikoek argitaraturik eta eguneraturik izango dituzte, etengabe, erantzukizunpeko adierazpenaren eta komunikazioaren ereduak, interesdunek erraz eskuratzeko moduan.

5. Las Administraciones Públicas tendrán permanentemente publicados y actualizados modelos de declaración responsable y de comunicación, fácilmente accesibles a los interesados.

6. Erantzukizunpeko adierazpena bakarrik edo komunikazioa bakarrik eskatu ahal izango da jarduera bera hasteko edo eskubide edo ahalmen bera baliatzeko aukera aitortzeko; ez dago biak batera eskatzerik.

6. Únicamente será exigible, bien una declaración responsable, bien una comunicación para iniciar una misma actividad u obtener el reconocimiento de un mismo derecho o facultad para su ejercicio,

sin que sea posible la exigencia de ambas acumulativamente.

III. KAPITULUA
Prozeduraren antolamendua

70. artikulua. Administrazio-espedientea.

1. Administrazio-espedientea dokumentu eta jarduketen multzo ordenatu bat da, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena.

2. Espedienteak formatu elektronikoa izan behar du, eta haren osagai izan behar duten dokumentu, froga, irizpen, txosten, erabaki, jakinarazpen eta gainerako eginbideak ordenaturik batuz osatu behar da, eta barnean dituen dokumentu guztien aurkibide zenbakitu batekin joan behar du bidaltzen denean.

Espedientean jaso behar da, orobat, hartutako ebazpenaren kopia elektroniko ziurtatua.

3. Arau baten ondorioz espediente elektroniko bat bidali beharra dagoenean, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalean eta Elkarreragingarritasunari buruzko Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera bidaliko da, osorik, orrialdekaturik, autentifikaturik eta dituen dokumentu guztien aurkibide orobat autentifikatu batez lagundurik.

Aurkibide hori autentikatzeak bermatzen du sortutako espediente elektronikoa osorik eta aldaezin egongo dela sinatzen den unetik, eta aukera emango du behar den guztietan berreskuratzeko. Onargarria da dokumentu bat bera administrazio-espediente bat baino gehiagoren parte izatea.

4. Ez da administrazio-espedientearen parte izango informazio lagungarria edo osagarria, hala nola aplikazio, fitxategi eta datu-base informatikoetakoa, ohar, zirriborro, iritzi, laburpen, komunikazio eta txostenetakoa, izan txostenok barrukoak edo administrazio-organo edo entitateen artekoak, eta orobat administrazio publikoek emandako balio-judizioak, non eta ez diren prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena baino lehen eskatutako txostenak, nahitaezkoak eta aukerakoak.

71. artikulua. Prozedura bultzatzea.

1. Prozedura, bizkortasun-printzipioa zainduz, ofizioz bultzatuko da izapide guztietan, eta

CAPÍTULO III
Ordenación del procedimiento

Artículo 70. Expediente Administrativo.

1. Se entiende por expediente administrativo el conjunto ordenado de documentos y actuaciones que sirven de antecedente y fundamento a la resolución administrativa, así como las diligencias encaminadas a ejecutarla.

2. Los expedientes tendrán formato electrónico y se formarán mediante la agregación ordenada de cuantos documentos, pruebas, dictámenes, informes, acuerdos, notificaciones y demás diligencias deban integrarlos, así como un índice numerado de todos los documentos que contenga cuando se remita.

Asimismo, deberá constar en el expediente copia electrónica certificada de la resolución adoptada.

3. Cuando en virtud de una norma sea preciso remitir el expediente electrónico, se hará de acuerdo con lo previsto en el Esquema Nacional de Interoperabilidad y en las correspondientes Normas Técnicas de Interoperabilidad, y se enviará completo, foliado, autentificado y acompañado de un índice, asimismo autentificado, de los documentos que contenga.

La autenticación del citado índice garantizará la integridad e inmutabilidad del expediente electrónico generado desde el momento de su firma y permitirá su recuperación siempre que sea preciso, siendo admisible que un mismo documento forme parte de distintos expedientes electrónicos.

4. No formará parte del expediente administrativo la información que tenga carácter auxiliar o de apoyo, como la contenida en aplicaciones, ficheros y bases de datos informáticas, notas, borradores, opiniones, resúmenes, comunicaciones e informes internos o entre órganos o entidades administrativas, así como los juicios de valor emitidos por las Administraciones Públicas, salvo que se trate de informes, preceptivos y facultativos, solicitados antes de la resolución administrativa que ponga fin al procedimiento.

Artículo 71. Impulso.

1. El procedimiento, sometido al principio de celeridad, se impulsará de oficio en todos sus

bitarteko elektronikoen bidez, gardentasun- eta publikotasun-printzipioak gordez.

trámites y a través de medios electrónicos, respetando los principios de transparencia y publicidad.

2. Espedienteak bideratzean, antzeko izaera duten auzietan zorrotz gordeko da hasieraren araberako hurrenkera, administrazio-unitateko titularrak ez badu kontrako agindurik ematen, arrazoiturik, jasota geratzeko moduan.

2. En el despacho de los expedientes se guardará el orden riguroso de incoación en asuntos de homogénea naturaleza, salvo que por el titular de la unidad administrativa se dé orden motivada en contrario, de la que quede constancia.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez betetzeak arau-hausleari diziplina-erantzukizuna exijitzea ekarriko du, eta, hala badagokio, lanpostutik mugiarazteko arrazoi izango da.

El incumplimiento de lo dispuesto en el párrafo anterior dará lugar a la exigencia de responsabilidad disciplinaria del infractor y, en su caso, será causa de remoción del puesto de trabajo.

3. Instrukzio-organo gisa izendatutako pertsonak edo, hala badagokio, eginkizun hori izendatua duten administrazio-unitateen titularrak zuzeneko erantzule izango dira prozedura izapidetzeari dagokionez, eta, bereziki, ezarritako epeak betetzeari dagokionez.

3. Las personas designadas como órgano instructor o, en su caso, los titulares de las unidades administrativas que tengan atribuida tal función serán responsables directos de la tramitación del procedimiento y, en especial, del cumplimiento de los plazos establecidos.

72. artikulua. Izapideak kontzentratzea.

Artículo 72. Concentración de trámites.

1. Administrazioa sinplifikatzeko printzipioarekin bat, egintza bakar batean erabakiko dira izaeragatik batera bultza daitezkeen eta nahitaez bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak.

1. De acuerdo con el principio de simplificación administrativa, se acordarán en un solo acto todos los trámites que, por su naturaleza, admitan un impulso simultáneo y no sea obligado su cumplimiento sucesivo.

2. Beste organo batzuek bete beharreko izapideak eskatzean, komunikazioan adierazi behar da zer epe ezartzen duen legeak izapiderako.

2. Al solicitar los trámites que deban ser cumplidos por otros órganos, deberá consignarse en la comunicación cursada el plazo legal establecido al efecto.

73. artikulua. Izapideak betetzea.

Artículo 73. Cumplimiento de trámites.

1. Interesdunek bete beharreko izapideak hamar eguneko epean egin beharko dira, dagokion egintza jakinarazi eta biharamunetik zenbaturik, dagokion arauak bestelako eperik ezartzen ez badu.

1. Los trámites que deban ser cumplimentados por los interesados deberán realizarse en el plazo de diez días a partir del siguiente al de la notificación del correspondiente acto, salvo en el caso de que en la norma correspondiente se fije plazo distinto.

2. Prozeduraren edozein unetan, Administrazioak, irizten badio interesdunen egintzaren batek ez dituela betetzen behar diren betekizunak, hala jakinaraziko dio egintzaren egileari, eta hamar eguneko epea emango dio betekizun hori behar bezala betetzeko.

2. En cualquier momento del procedimiento, cuando la Administración considere que alguno de los actos de los interesados no reúne los requisitos necesarios, lo pondrá en conocimiento de su autor, concediéndole un plazo de diez días para cumplimentarlo.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoa betetzen ez duten interesdunek dagokion izapiderako eskubidea galdu dutela deklaratuko da.

3. A los interesados que no cumplan lo dispuesto en los apartados anteriores, se les podrá declarar decaídos en su derecho al trámite correspondiente.

Hala ere, interesdunaren jarduketa onartuko da, eta legezko ondorioak izango ditu, baldin eta epea iragantzat jotzen duen ebazpena jakinarazten den

No obstante, se admitirá la actuación del interesado y producirá sus efectos legales, si se produjera antes o dentro del día que se notifique la

eguna baino lehen edo egun horren barruan gertatzen bada.

74. artikulua. Arazo intzidentalak.

Prozeduran sortzen diren arazo intzidentalek, are jarduketen deuseztasunari buruzkoak badira ere, ez dute izapidetza etengo; errekusazioak, ordea, bai.

IV. KAPITULUA
Prozeduraren instrukzioa

1. atala Xedapen orokorrak

75. artikulua. Instrukzio-egintzak

1. Ebazpena eman beharra eragin duten egitateak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko behar diren instrukzio-egintzak ofizioz eta bitarteko elektronikoz egingo ditu prozedura izapidetzen ari den organoak. Interesdunek eskubidea dute, nolanahi ere, beren esku-hartzea eskatzen duten edo legez edo erregelamenduz ezarritako izapideak diren jarduketak proposatzeko.

2. Prozeduren instrukzioa egiteko erabilitako aplikazioek eta informazio-sistemek bermatu behar dute denbora eta epeen kontrola, erantzule diren organoen identifikazioa eta espedienteak modu ordenatuan izapidetzea, eta erraztasunak eman behar dituzte prozedurak sinplifikatzeko eta publiko egiteko.

3. Interesdunek parte hartu behar duten instrukzio-egintzak haiei komenigarrien zaien moduan egin behar dira, eta haien lanarekin edo betebehar profesionalekin ahal den neurrian bateragarri izateko moduan.

4. Dena den, instrukzio-organoak behar diren neurriak hartuko ditu prozeduran osotara errespeta daitezen prozedurako interesdunen kontraesan- eta berdintasun-printzipioak.

76. artikulua. Alegazioak.

1. Interesdunek aukera izango dute prozeduraren edozein urratsetan, entzunaldiaren izapidea egin baino lehen, alegazioak egiteko eta dokumentuak edo bestelako irizpen-elementuak aurkezteko.

Horiek guztiak kontuan hartuko ditu organo eskudunak ebazpen-proposamena idaztean.

resolución en la que se tenga por transcurrido el plazo.

Artículo 74. Cuestiones incidentales.

Las cuestiones incidentales que se susciten en el procedimiento, incluso las que se refieran a la nulidad de actuaciones, no suspenderán la tramitación del mismo, salvo la recusación.

CAPÍTULO IV
Instrucción del procedimiento

Sección 1.ª Disposiciones generales

Artículo 75. Actos de instrucción.

1. Los actos de instrucción necesarios para la determinación, conocimiento y comprobación de los hechos en virtud de los cuales deba pronunciarse la resolución, se realizarán de oficio y a través de medios electrónicos, por el órgano que tramite el procedimiento, sin perjuicio del derecho de los interesados a proponer aquellas actuaciones que requieran su intervención o constituyan trámites legal o reglamentariamente establecidos.

2. Las aplicaciones y sistemas de información utilizados para la instrucción de los procedimientos deberán garantizar el control de los tiempos y plazos, la identificación de los órganos responsables y la tramitación ordenada de los expedientes, así como facilitar la simplificación y la publicidad de los procedimientos.

3. Los actos de instrucción que requieran la intervención de los interesados habrán de practicarse en la forma que resulte más conveniente para ellos y sea compatible, en la medida de lo posible, con sus obligaciones laborales o profesionales.

4. En cualquier caso, el órgano instructor adoptará las medidas necesarias para lograr el pleno respeto a los principios de contradicción y de igualdad de los interesados en el procedimiento.

Artículo 76. Alegaciones.

1. Los interesados podrán, en cualquier momento del procedimiento anterior al trámite de audiencia, aducir alegaciones y aportar documentos u otros elementos de juicio.

Unos y otros serán tenidos en cuenta por el órgano competente al redactar la correspondiente propuesta de resolución.

2. Interesdunek prozeduraren edozein urratsetan alega ditzakete izapidetze-akatsak, bereziki hauek: haien ondorioz prozedura gelditzea, nahitaezkotzat jarritako epeak ez betetzea edo gaiari buruzko behin betiko ebazpena eman aurretik konpon daitezkeen izapideak ez egitea dakartenak.

Alegazio horiek diziplina-erantzukizuna exijitzea ekar dezakete, horretarako arrazoirik badago.

2. En todo momento podrán los interesados alegar los defectos de tramitación y, en especial, los que supongan paralización, infracción de los plazos preceptivamente señalados o la omisión de trámites que pueden ser subsanados antes de la resolución definitiva del asunto.

Dichas alegaciones podrán dar lugar, si hubiere razones para ello, a la exigencia de la correspondiente responsabilidad disciplinaria.

2. atala Frogatzea

Sección 2.ª Prueba

77. artikulua. Frogabideak eta frogaldia.

Artículo 77. Medios y período de prueba.

1. Zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez egiazta daitezke prozedura erabakitzeko garrantzizkoak diren egitateak. Frogabideak balioesteko irizpideak Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean aurreikusitakoak dira.

1. Los hechos relevantes para la decisión de un procedimiento podrán acreditarse por cualquier medio de prueba admisible en Derecho, cuya valoración se realizará de acuerdo con los criterios establecidos en la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

2. Administrazioak ez baditu egiazkotzat jotzen interesdunek alegatutako egitateak, edo prozeduraren izaerak hala eskatzen badu, prozeduraren instrukzio-egileak frogaldi bat hastea erabakiko du, gehienez hogeita hamar egunekoa eta gutxienez hamarrekoa, egoki deritzon froga guztiak egin daitezen.

2. Cuando la Administración no tenga por ciertos los hechos alegados por los interesados o la naturaleza del procedimiento lo exija, el instructor del mismo acordará la apertura de un período de prueba por un plazo no superior a treinta días ni inferior a diez, a fin de que puedan practicarse cuantas juzgue pertinentes.

Halaber, beharrezko irizten dionean, ezohiko frogaldi bat egitea erabaki dezake instrukzio-egileak, interesdunek eskaturik, gehienez ere beste hamar egunekoa.

Asimismo, cuando lo considere necesario, el instructor, a petición de los interesados, podrá decidir la apertura de un período extraordinario de prueba por un plazo no superior a diez días.

3. Interesdunek proposatutako frogak nabarmen desegokiak edo alferrikakoak direnean bakarrik erabaki dezake instrukzio-egileak, ebazpen arrazoitu baten bidez, haiek ez onartzea.

3. El instructor del procedimiento sólo podrá rechazar las pruebas propuestas por los interesados cuando sean manifiestamente improcedentes o innecesarias, mediante resolución motivada.

3 bis. Interesdunak diskriminazioa alegatzen badu eta horri buruzko zantzu funtsatuak aurkezten baditu, diskriminazio-egoera egozten zaion pertsonari dagokio justifikazio objektibo eta arrazoizko bat aurkeztea, behar bezala frogatua, hartutako neurriei eta haien proportzionaltasunari buruz.

3 bis. Cuando el interesado alegue discriminación y aporte indicios fundados sobre su existencia, corresponderá a la persona a quien se impute la situación discriminatoria la aportación de una justificación objetiva y razonable, suficientemente probada, de las medidas adoptadas y de su proporcionalidad.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, administrazio-organoak berdintasunaren arloan eskumena duten organismo publikoen txostena eskatu ahal izango du.

A los efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, el órgano administrativo podrá recabar informe de los organismos públicos competentes en materia de igualdad.

4. Zehapen-prozeduretan, ebazpen judizial penal irmoz frogatutzat jotako egitateak lotesleak izango dira administrazio publikoentzat, haiek bideratzen dituzten zehapen-prozedurei dagokienez.

4. En los procedimientos de carácter sancionador, los hechos declarados probados por resoluciones judiciales penales firmes vincularán a las

Administraciones Públicas respecto de los procedimientos sancionadores que substancien.

5. Egitateen frogatzat hartuko dira, kontrakoa egiaztatzen ez bada, agintari-kondizioa aitortzen zaien funtzionarioek formalizaturik dauden eta, dagozkien legezko betekizunak gorderik, haiek egiaztatutako egitateak jasotzen dituzten dokumentuak.

5. Los documentos formalizados por los funcionarios a los que se reconoce la condición de autoridad y en los que, observándose los requisitos legales correspondientes se recojan los hechos constatados por aquéllos harán prueba de éstos salvo que se acredite lo contrario.

6. Froga txosten bat baldin bada eta txostenaren emailea administrazio-organoa, organismo publikoa edo zuzenbide publikoko entitatea baldin bada, nahitaezkotzat hartuko da.

6. Cuando la prueba consista en la emisión de un informe de un órgano administrativo, organismo público o Entidad de derecho público, se entenderá que éste tiene carácter preceptivo.

7. Egindako frogen balioespena funtsezko oinarria izan badaiteke prozeduran erabakia hartzeko, egitateak zuzen ebaluatzeko pieza ezinbestekoa delako, ebazpen-proposamenean sartu beharko da.

7. Cuando la valoración de las pruebas practicadas pueda constituir el fundamento básico de la decisión que se adopte en el procedimiento, por ser pieza imprescindible para la correcta evaluación de los hechos, deberá incluirse en la propuesta de resolución.

78. artikulua. Froga egitea.

Artículo 78. Práctica de prueba.

1. Administrazioak behar besteko aurrerapenez komunikatuko die interesdunei noiz hasiko diren onartutako frogak gauzatzeko behar diren jarduketak.

1. La Administración comunicará a los interesados, con antelación suficiente, el inicio de las actuaciones necesarias para la realización de las pruebas que hayan sido admitidas.

2. Jakinarazpenean jasoko da frogak non, zer egunetan eta zer ordutan egingo diren, eta ohartaraziko da, hala badagokio, interesdunak teknikariak izenda ditzakeela lagundu diezaioten.

2. En la notificación se consignará el lugar, fecha y hora en que se practicará la prueba, con la advertencia, en su caso, de que el interesado puede nombrar técnicos para que le asistan.

3. Interesdunak eskaturik frogak egin behar direnean eta froga horiek administrazioak ordaindu behar ez dituen gastuak badakartzate, administrazioak dirua aurreratzeko eska diezaioke interesdunari, eta, frogak egindakoan, gastuen behin betiko likidazioa egingo da.

3. En los casos en que, a petición del interesado, deban efectuarse pruebas cuya realización implique gastos que no deba soportar la Administración, ésta podrá exigir el anticipo de los mismos, a reserva de la liquidación definitiva, una vez practicada la prueba.

Gastuak benetan egin direla eta hainbestekoak izan direla egiaztatzeko dokumentuak aurkeztuta egingo da gastuen likidazioa.

La liquidación de los gastos se practicará uniendo los comprobantes que acrediten la realidad y cuantía de los mismos.

3. atala Txostenak

Sección 3.ª Informes

79. artikulua. Txostenak eskatzea.

Artículo 79. Petición.

1. Prozedura ebazteko, lege-xedapenen arabera nahitaezkoak diren txostenak eskatuko dira, eta ebazteko beharrezko iritzitakoak, nahitaezkotzat zer manuk jotzen dituen adieraziz edo, eskatu behar badira, eskatzea zergatik komeni den arrazoituz.

1. A efectos de la resolución del procedimiento, se solicitarán aquellos informes que sean preceptivos por las disposiciones legales, y los que se juzguen necesarios para resolver, citándose el precepto que los exija o fundamentando, en su caso, la conveniencia de reclamarlos.

2. Txostena eskatzean, zehaztu behar da zer alderdi aztertu behar den edo diren.

2. En la petición de informe se concretará el extremo o extremos acerca de los que se solicita.

80. artikulua. Txostenak egitea.

1. Txostenak aukerakoak dira, eta ez lotesleak, espresuki kontrakoa xedatzen ez bada.

2. Txostenak bitarteko elektronikoz eta 26. artikuluan adierazitako betekizunen arabera emango dira, hamar eguneko epean, non eta xedapenen batek edo prozeduraren gainerako epeak betetzeak ez duen ahalbidetzen edo eskatzen epea luzeagoa edo laburragoa izatea.

3. Txostena ez bada ematen adierazitako epean, eta atzerapenaren erantzuleak izan dezakeen erantzukizuna gorabehera, aurrera jarraitu ahal izango da jarduketak egiten, non eta ez den nahitaezko txosten baten kasua; nahitaezko txostena bada, prozedura ebazteko legezko gehieneko epea eten daiteke, 22. artikuluaren 1. apartatuko d) letrak ezarritako moduan.

4. Prozedura izapidetzen ari denaz beste administrazio publiko batek egin behar badu txostena, bere eskumenei dagokien ikuspuntua adierazteko, eta epea amaitu bada txostena egin gabe, aurrera jarraitu dezakete jarduketek.

Epez kanpo egindako txostena ez da nahitaez kontuan hartu behar ebazpena ematean.

81. artikulua. Ondare-erantzukizuneko prozeduretan txostenak eta irizpenak eskatzea.

1. Ondare-erantzukizuneko prozeduren kasuan, nahitaez eskatu behar zaio txostena ustezko kalte ordaingarria eragin duen funtzionamenduari dagokion zerbitzuari, eta gehienez ere hamar egunekoa izango da hura emateko epea.

2. Eskatzen den kalte-ordaina 50.000 euro edo gehiago denean, edo dagokion legeria autonomikoak ezartzen duena baino gehiago, eta halaber Estatu Kontseiluari buruzko apirilaren 22ko 3/1980 Lege Organikoan hala xedatzen den kasuetan, nahitaezkoa izango da irizpena eskatzea Estatu Kontseiluari edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo aholku-emaileari.

Ondorio horietarako, entzunaldiaren izapidea amaitu eta hurrengo hamar eguneko epean, ebazpen-proposamen bat bidaliko dio instrukzio-organoak organo eskudunari, irizpena eskatzeko, 91. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, edo,

Artículo 80. Emisión de informes.

2. No se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente o se haya producido la desestimación presunta del recurso de reposición interpuesto.

124. artikulua. Epeak.

1. Berraztertze-errekurtsoa jartzeko epea hilabete izango da, egintza espresua bada.

Epe hori amaitutakoan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bakarrik jar daiteke, hargatik eragotzi gabe egoki bada aparteko berrikuspen-errekurtsoa jartzeko aukera.

Egintza espresua ez bada, eskatzaileak eta izan litezkeen beste interesdun batzuek berraztertze-errekurtsoa jar dezakete, noiznahi, araudi espezifikoaren arabera presuntziozko egintza gertatu eta biharamunetik aurrera.

2. Errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete izango da.

3. Berraztertze-errekurtsoaren ebazpenaren aurka ezin da berriz berraztertze-errekurtsorik jarri.

Artículo 124. Plazos.

1. El plazo para la interposición del recurso de reposición será de un mes, si el acto fuera expreso.

Transcurrido dicho plazo, únicamente podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, sin perjuicio, en su caso, de la procedencia del recurso extraordinario de revisión.

Si el acto no fuera expreso, el solicitante y otros posibles interesados podrán interponer recurso de reposición en cualquier momento a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzca el acto presunto.

2. El plazo máximo para dictar y notificar la resolución del recurso será de un mes.

3. Contra la resolución de un recurso de reposición no podrá interponerse de nuevo dicho recurso.

4. atala Aparteko berrikuspen-errekurtsoa

Sección 4.ª Recurso extraordinario de revisión

125. artikulua. Xedea eta epeak.

1. Administrazio-bidetik irmoak diren egintzen aurka, aparteko berrikuspen-errekurtsoa aurkez dakioke egintza horiek eman zituen administrazio-organoari, ebazteko eskumena ere hark izango baitu, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

a) Egintza ematean egitezko okerren bat gertatzea, espedienteari erantsitako dokumentuei lotua.

b) Gaia ebazteko funtsezko balioa duten dokumentuak agertzea, ebazpen errekurrituaren okerra agerian uzten dutenak, geroago bada ere.

c) Ebazpenean funtsezko eragina izan zuten zenbait dokumentu edo lekukotasun faltsuak zirela deklaratzea epai judizial irmo batek, ebazpenaren aurretik edo ondoren.

d) Prebarikazio, funtzionario-eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo bestelako jokaera zigorgarri baten ondorioz eman izana ebazpena, eta epai judizial irmo batek hala deklaratzea.

2. Aparteko berrikuspen-errekurtsoa, aurreko apartatuko a) kasuan, ebazpen aurkaratua jakinarazi ondorengo lau urteko epean jarriko da.

Gainerako kasuetan, epea hiru hilabetekoa izango da, dokumentuen berri izaten denetik edota epai judiziala irmoa denetik hasita.

3. Artikulu honetan ezarritakoak ez du eragotziko interesdunek eskubidea izatea lege honen 106. eta 109.2 artikuluetan jasotako eskaera eta eskaria egiteko, eta h
aiek bideratuak eta ebatziak izateko.

126. artikulua. Ebazpena.

1. Errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak errekurtsoa izapidetzeko ez onartzea erabaki dezake, arrazoiak azalduta, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emailearen irizpen beharrik gabe, honako kasu hauetan: baldin eta errekurtsoa aurreko artikuluko lehen zenbakian aurreikusitako arrazoietakoren batean oinarritzen ez bada, edo oinarri berdintsuko beste eskaera batzuk funtsari dagokionez ezetsita badaude.

Artículo 125. Objeto y plazos.

1. Contra los actos firmes en vía administrativa podrá interponerse el recurso extraordinario de revisión ante el órgano administrativo que los dictó, que también será el competente para su resolución, cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:

a) Que al dictarlos se hubiera incurrido en error de hecho, que resulte de los propios documentos incorporados al expediente.

b) Que aparezcan documentos de valor esencial para la resolución del asunto que, aunque sean posteriores, evidencien el error de la resolución recurrida.

c) Que en la resolución hayan influido esencialmente documentos o testimonios declarados falsos por sentencia judicial firme, anterior o posterior a aquella resolución.

d) Que la resolución se hubiese dictado como consecuencia de prevaricación, cohecho, violencia, maquinación fraudulenta u otra conducta punible y se haya declarado así en virtud de sentencia judicial firme.

2. El recurso extraordinario de revisión se interpondrá, cuando se trate de la causa a) del apartado anterior, dentro del plazo de cuatro años siguientes a la fecha de la notificación de la resolución impugnada.

En los demás casos, el plazo será de tres meses a contar desde el conocimiento de los documentos o desde que la sentencia judicial quedó firme.

3. Lo establecido en el presente artículo no perjudica el derecho de los interesados a formular la solicitud y la instancia a que se refieren los artículos 106 y 109.2 de la presente Ley ni su derecho a que las mismas se sustancien y resuelvan.

Artículo 126. Resolución.

1. El órgano competente para la resolución del recurso podrá acordar motivadamente la inadmisión a trámite, sin necesidad de recabar dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo de la Comunidad Autónoma, cuando el mismo no se funde en alguna de las causas previstas en el apartado 1 del artículo anterior o en el supuesto de que se hubiesen desestimado en cuanto al fondo otros recursos sustancialmente iguales.

2. Aparteko berrikuspen-errekurtsoa ebazteko ardura duen organoak erabaki behar du, bai errekurtsoaren egokitasunaz, bai, egokia bada, egintza errekurrituaren bidez ebatzitako arazoaren funtsaz.

3. Aparteko berrikuspen-errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabetean ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, errekurtsoa ezetsitzat joko da, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioko bidea.

2. El órgano al que corresponde conocer del recurso extraordinario de revisión debe pronunciarse no sólo sobre la procedencia del recurso, sino también, en su caso, sobre el fondo de la cuestión resuelta por el acto recurrido.

3. Transcurrido el plazo de tres meses desde la interposición del recurso extraordinario de revisión sin haberse dictado y notificado la resolución, se entenderá desestimado, quedando expedita la vía jurisdiccional contencioso-administrativa.

VI. TITULUA
Legegintza-ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahala

TÍTULO VI
De la iniciativa legislativa y de la potestad para dictar reglamentos y otras disposiciones

127. artikulua. Legegintza-ekimena eta lege-mailako arauak emateko ahala.

Nazioko gobernuak Konstituzioan aurreikusitako legegintza-ekimena baliatuko du, lege-aurreproiektuak prestatuz eta onetsiz eta gero lege-proiektuak Gorte Nagusietara igorriz.

Autonomia-erkidegoetako gobernu-organoek Konstituzioan eta beren autonomia-estatutuetan ezarritako moduan baliatuko dute legegintza-ekimena.

Nazioko gobernuak, halaber, errege lege-dekretuak eta legegintzako errege-dekretuak onetsi ahal izango ditu, Konstituzioan aurreikusitako moduan.

Autonomia-erkidegoetako gobernu-organoek, berriz, aurrekoen baliokide diren arauak onetsi ahal izango dituzte beren lurralde-eremuan, Konstituzioan eta beren autonomia-estatutuetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Artículo 127. Iniciativa legislativa y potestad para dictar normas con rango de ley.

El Gobierno de la Nación ejercerá la iniciativa legislativa prevista en la Constitución mediante la elaboración y aprobación de los anteproyectos de Ley y la ulterior remisión de los proyectos de ley a las Cortes Generales.

La iniciativa legislativa se ejercerá por los órganos de gobierno de las Comunidades Autónomas en los términos establecidos por la Constitución y sus respectivos Estatutos de Autonomía.

Asimismo, el Gobierno de la Nación podrá aprobar reales decretos-leyes y reales decretos legislativos en los términos previstos en la Constitución.

Los respectivos órganos de gobierno de las Comunidades Autónomas podrán aprobar normas equivalentes a aquéllas en su ámbito territorial, de conformidad con lo establecido en la Constitución y en sus respectivos Estatutos de Autonomía.

128. artikulua. Erregelamenduak egiteko ahala.

1. Erregelamenduak egiteko ahala baliatzea hauei dagokie: nazioko gobernuari; autonomia-erkidegoetako gobernu-organoei, beren estatutuetan ezarritakoaren arabera, eta tokiko gobernu-organoei, Konstituzioan, autonomia-estatutuetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera.

2. Administrazioaren erregelamenduek eta xedapenek ezin dituzte urratu Konstituzioa edo legeak, eta ezin dute erregulatu Konstituzioak edo autonomia-estatutuek Gorte Nagusien edo

Artículo 128. Potestad reglamentaria.

1. El ejercicio de la potestad reglamentaria corresponde al Gobierno de la Nación, a los órganos de Gobierno de las Comunidades Autónomas, de conformidad con lo establecido en sus respectivos Estatutos, y a los órganos de gobierno locales, de acuerdo con lo previsto en la Constitución, los Estatutos de Autonomía y la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

2. Los reglamentos y disposiciones administrativas no podrán vulnerar la Constitución o las leyes ni regular aquellas materias que la Constitución o los Estatutos de Autonomía reconocen de la competencia de las Cortes Generales o de las

autonomia-erkidegoetako legebiltzarren eskumenekotzat jotako gairik.

Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas.

Hargatik eragotzi gabe legearekiko duten garapen- eta elkarlan-eginkizuna, ezin izango dute delitu, falta edo arau-hauste administratiborik tipifikatu, zigor edo zehapenik ezarri, ez eta tributu, ordainarazpen parafiskal edo izaera publikoko beste karga edo prestazio pertsonal edo ondarezkorik ere.

Sin perjuicio de su función de desarrollo o colaboración con respecto a la ley, no podrán tipificar delitos, faltas o infracciones administrativas, establecer penas o sanciones, así como tributos, exacciones parafiscales u otras cargas o prestaciones personales o patrimoniales de carácter público.

3. Legeek ezarritako hierarkia-hurrenkerari lotuko zaizkio administrazio-xedapenak.

3. Las disposiciones administrativas se ajustarán al orden de jerarquía que establezcan las leyes.

Administrazio-xedapenek ezin dute urratu goragoko mailako manurik.

Ninguna disposición administrativa podrá vulnerar los preceptos de otra de rango superior.

129. artikulua. Erregulazio onaren printzipioak.

Artículo 129. Principios de buena regulación.

1. Legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

1. En el ejercicio de la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria, las Administraciones Públicas actuarán de acuerdo con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, y eficiencia.

Zioen azalpenean edo atarikoan —lege-aurreproiektua den edo erregelamendu-proiektua— behar bezala justifikatu beharko da printzipio horiei lotzen zaiela.

En la exposición de motivos o en el preámbulo, según se trate, respectivamente, de anteproyectos de ley o de proyectos de reglamento, quedará suficientemente justificada su adecuación a dichos principios.

2. Premia- eta efikazia-printzipioen arabera, araugintza-ekimenak interes orokorreko arrazoi batekin justifikatuta egon behar du, lortu nahi diren xedeen definizio argi batean oinarritua izan, eta haiek lortuko direla bermatzeko tresnarik egokiena izan.

2. En virtud de los principios de necesidad y eficacia, la iniciativa normativa debe estar justificada por una razón de interés general, basarse en una identificación clara de los fines perseguidos y ser el instrumento más adecuado para garantizar su consecución.

3. Proportzionaltasun-printzipioaren arabera, proposatzen den ekimenak arauarekin bete nahi den premiari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa izan beharko du, eta egiaztatu beharko da, lehenago, ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko dituenik edo xede diren pertsonei betebehar gutxiago ezarriko dienik.

3. En virtud del principio de proporcionalidad, la iniciativa que se proponga deberá contener la regulación imprescindible para atender la necesidad a cubrir con la norma, tras constatar que no existen otras medidas menos restrictivas de derechos, o que impongan menos obligaciones a los destinatarios.

4. Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araugintza-ekimena gauzatzean koherentzia gorde behar da gainerako ordenamendu juridikoarekin, izan Espainiakoa zein Europar Batasunekoa, araugintza-esparru egonkor, aurresangarri, integratu, argi eta segurtasuneko bat sortzeko, eta erraztasunak emango dituena ezagutzarako eta ulermenerako eta, ondorioz, pertsonek eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko.

4. A fin de garantizar el principio de seguridad jurídica, la iniciativa normativa se ejercerá de manera coherente con el resto del ordenamiento jurídico, nacional y de la Unión Europea, para generar un marco normativo estable, predecible, integrado, claro y de certidumbre, que facilite su conocimiento y comprensión y, en consecuencia, la actuación y toma de decisiones de las personas y empresas.

Administrazio-prozeduraren gaian araugintza-ekimenak izapide gehigarriak edo lege honetan

Cuando en materia de procedimiento administrativo la iniciativa normativa establezca

aurreikusitakoez bestelakoak ezartzen dituenean, haiek justifikatu beharra dago gaiaren berezitasunagatik edo proposamenean lortu nahi diren xedeengatik.

Lege baten erregelamendu-garapenerako gaikuntzak, oro har, Gobernuari edo dagokion gobernu-kontseiluari emango zaizkio.

Salbuespenezkoa izango da zuzenean Gobernuko ministerioen edo kontseilaritzen titularrei esleitzea, edo haien mendeko edo agindupeko beste organo batzuei, eta esleipen hori justifikatu egin beharko da gaikuntza ematen duen legean.

Legeek gaikuntza eman ahal izango diete zuzenean agintaritza independente batzuei edo ahal hori esleitua duten beste organismo batzuei, legeok garatzeko edo aplikatzeko arauak onesteko, gaiak hala eskatzen duenean.

5. Gardentasun-printzipioa aplikatuz, administrazio publikoek erraztasunak emango dituzte irispide erraza, unibertsala eta eguneratua izan dadin, indarrean den araudia eta hura prestatzeko prozesuari dagozkion dokumentuak eskuratzeko, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritako moduan; argi definituko dituzte araugintza-ekimenen helburuak eta justifikazioa, arauen atarikoan edo zioen azalpenean; eta aukera emango dute hartzaile izan daitezkeenek parte-hartze aktiboa izan dezaten arauen prestakuntzan.

6. Efizientzia-printzipioa aplikatuz, araugintza-ekimenak saihestu egin behar ditu karga administratibo alferrikakoak edo ezinbesteko ez direnak, eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu aplikatzeko orduan.

7. Araugintza-ekimenak uneko edo etorkizuneko diru-sarrera edo gastu publikoei eragiten dienean, zenbatetsi eta balioetsi egin beharko dira eragin eta ondorio horiek, eta aintzat hartu aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak bete beharra.

Kontuan izan behar da Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiak artikulu hau eskumenen konstituzio-ordenaren aurkakotzat jo duela, 7 b) oinarri juridikoaren terminoetan —4. apartatuaren bigarren eta hirugarren paragrafoak izan ezik—, eta halaber 4. apartatuaren hirugarren paragrafoan letra lodiz nabarmendutako tartekien konstituzio-kontrakotasuna eta deuseztasuna deklaratu dituela.

Erref. BOE-A-2018-8574

trámites adicionales o distintos a los contemplados en esta Ley, éstos deberán ser justificados atendiendo a la singularidad de la materia o a los fines perseguidos por la propuesta.

Las habilitaciones para el desarrollo reglamentario de una ley serán conferidas, con carácter general, al Gobierno o Consejo de Gobierno respectivo.

La atribución directa a los titulares de los departamentos ministeriales o de las consejerías del Gobierno, o a otros órganos dependientes o subordinados de ellos, tendrá carácter excepcional y deberá justificarse en la ley habilitante.

Las leyes podrán habilitar directamente a Autoridades Independientes u otros organismos que tengan atribuida esta potestad para aprobar normas en desarrollo o aplicación de las mismas, cuando la naturaleza de la materia así lo exija.

5. En aplicación del principio de transparencia, las Administraciones Públicas posibilitarán el acceso sencillo, universal y actualizado a la normativa en vigor y los documentos propios de su proceso de elaboración, en los términos establecidos en el artículo 7 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno; definirán claramente los objetivos de las iniciativas normativas y su justificación en el preámbulo o exposición de motivos; y posibilitarán que los potenciales destinatarios tengan una participación activa en la elaboración de las normas.

6. En aplicación del principio de eficiencia, la iniciativa normativa debe evitar cargas administrativas innecesarias o accesorias y racionalizar, en su aplicación, la gestión de los recursos públicos.

7. Cuando la iniciativa normativa afecte a los gastos o ingresos públicos presentes o futuros, se deberán cuantificar y valorar sus repercusiones y efectos, y supeditarse al cumplimiento de los principios de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

Téngase en cuenta que este artículo se declara contrario al orden constitucional de competencias en los términos del fundamento jurídico 7 b), salvo los párrafos segundo y tercero del apartado 4, y la inconstitucionalidad y nulidad de los incisos destacados en negrita del párrafo tercero del apartado 4, por Sentencia del TC 55/2018, de 24 de mayo.

Ref. BOE-A-2018-8574

https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-8574

130. artikulua. Arau-ebaluazioa eta indarrean den araudia erregulazio onaren printzipioei egokitzea.

1. Administrazio publikoek berrikusi egingo dute aldian behin beren araudia, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko, eta egiaztatzeko ea indarrean diren arauek lortu dituzten aurreikusitako helburuak eta ea justifikatuta eta egoki zenbatetsita zeuden haietan ezarritako kostu eta kargak.

Ebaluazio horren emaitza txosten batean jasoko da, eta txosten hori publiko egingo da, dagokion administrazioaren araudi erregulatzaileak erabakitzen duen xehetasunarekin, maiztasunarekin eta organoaren bidez.

2. Administrazio publikoek sustatu egingo dute erregulazio onaren printzipioak aplikatzea, eta laguntza emango dute araugintzaren analisi ekonomikoa susta dadin eta, bereziki, ez dadin justifikaziorik gabeko edo neurriz gaineko murrizketarik ezarri jarduera ekonomikoan.

Kontuan izan behar da Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiak artikulu hau eskumenen konstituzio-ordenaren aurkakotzat jo duela, 7 b) oinarri juridikoaren terminoetan.

Erref. BOE-A-2018-8574
https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-8574

131. artikulua. Arauak publiko egitea.

Lege-mailako arauak, eta erregelamenduak eta administrazio-xedapenak dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira indarrean jartzeko eta ondorio juridikoak izateko.

Horretaz gain, aukera moduan, beste argitarabide osagarri batzuk ezarri ahal izango dituzte administrazio publikoek.

Egunkari edo aldizkari ofizialak administrazio, organo, organismo publiko edo entitate eskudunaren egoitza elektronikoetan argitaratzeak edizio inprimatuaren ondorio berak izango ditu, administrazio publiko bakoitzak erabakitzen dituen baldintzetan eta bermeekin.

https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-8574

Artículo 130. Evaluación normativa y adaptación de la normativa vigente a los principios de buena regulación.

1. Las Administraciones Públicas revisarán periódicamente su normativa vigente para adaptarla a los principios de buena regulación y para comprobar la medida en que las normas en vigor han conseguido los objetivos previstos y si estaba justificado y correctamente cuantificado el coste y las cargas impuestas en ellas.

El resultado de la evaluación se plasmará en un informe que se hará público, con el detalle, periodicidad y por el órgano que determine la normativa reguladora de la Administración correspondiente.

2. Las Administraciones Públicas promoverán la aplicación de los principios de buena regulación y cooperarán para promocionar el análisis económico en la elaboración de las normas y, en particular, para evitar la introducción de restricciones injustificadas o desproporcionadas a la actividad económica.

Téngase en cuenta que este artículo se declara contrario al orden constitucional de competencias en los términos del fundamento jurídico 7 b) por Sentencia del TC 55/2018, de 24 de mayo.

Ref. BOE-A-2018-8574
https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-8574

Artículo 131. Publicidad de las normas.

Las normas con rango de ley, los reglamentos y disposiciones administrativas habrán de publicarse en el diario oficial correspondiente para que entren en vigor y produzcan efectos jurídicos.

Adicionalmente, y de manera facultativa, las Administraciones Públicas podrán establecer otros medios de publicidad complementarios.

La publicación de los diarios o boletines oficiales en las sedes electrónicas de la Administración, Órgano, Organismo público o Entidad competente tendrá, en las condiciones y con las garantías que cada Administración Pública determine, los mismos efectos que los atribuidos a su edición impresa.

Estatuko Aldizkari Ofiziala organismo eskudunaren egoitza elektronikoan argitaratzeak izaera ofiziala eta autentikoa izango du erregelamenduz erabakitzen diren baldintzetan eta bermeekin, eta argitaratze horretatik Kode Zibilaren atariko tituluan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

La publicación del «Boletín Oficial del Estado» en la sede electrónica del Organismo competente tendrá carácter oficial y auténtico en las condiciones y con las garantías que se determinen reglamentariamente, derivándose de dicha publicación los efectos previstos en el título preliminar del Código Civil y en las restantes normas aplicables.

132. artikulua. Arau-plangintza.

Artículo 132. Planificación normativa.

1. Administrazio publikoek araugintza-plan bat argitaratuko dute urtero, hurrengo urtean onartzekoak diren diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dituena.

1. Anualmente, las Administraciones Públicas harán público un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente.

2. Behin onartutakoan, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian argitaratuko da urteko araugintza-plana.

2. Una vez aprobado, el Plan Anual Normativo se publicará en el Portal de la Transparencia de la Administración Pública correspondiente.

Kontuan izan behar da Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiak artikulu hau eskumenen konstituzio-ordenaren aurkakotzat jo duela, 7 b) eta 7 c) oinarri juridikoaren terminoetan.

Téngase en cuenta que este artículo se declara contrario al orden constitucional de competencias en los términos del fundamento jurídico 7 b) y 7 c) por Sentencia del TC 55/2018, de 24 de mayo.

Erref. BOE-A-2018-8574
https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-8574

Ref. BOE-A-2018-8574
https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-8574

133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.

Artículo 133. Participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos.

1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta ordezkaritza handieneko antolakundeek puntu hauei buruz:

1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.

b) Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den.

b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.

c) Arauaren helburuak.

c) Los objetivos de la norma.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

2. Ekimenaren testua idatzi aurretik kontsultak egitea eragotzi gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoei eragiten dienean, zuzendaritza-zentro eskudunak dagokion webgunean argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona

2. Sin perjuicio de la consulta previa a la redacción del texto de la iniciativa, cuando la norma afecte a los derechos e intereses legítimos de las personas, el centro directivo competente publicará el texto en el portal web correspondiente, con el objeto de dar audiencia a los ciudadanos afectados y recabar

eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.

Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzen dituzten antolakunde edo elkarte legez aitortuei, beren helburuek arauaren xedearekin zuzeneko zerikusia badute.

3. Artikulu honetan araututako kontsulta, entzunaldia eta informazio publikoa halako moldez egin beharko dira non arauaren hartzaile potentzialek eta hari buruz ekarpenak egiten dituztenek beren iritzia emateko aukera izango baitute. Horretarako, haien esku jarri beharko dira behar diren dokumentuak; dokumentu argiak, zehatzak eta gaiari buruz iritzia emateko informazio guztia biltzen dutenak.

4. Artikulu honetan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin gabe utz daitezke Estatuaren Administrazio Orokorraren, administrazio autonomikoaren, toki-administrazioaren edo haien mendeko edo haiei lotutako antolakundeen aurrekontuei edo antolaketari buruzko arauetan edo hala justifikatzen duten interes publikoko pisuzko arrazoiak daudenean.

Arau-proposamenak jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez daukanean, xede dituen hartzaileei betebehar handirik ezartzen ez dienean edo gai baten alderdi partzialak arautzen dituenean, egin gabe utz daiteke artikulu honen lehenengo apartatuan araututako kontsulta publikoa.

Administrazio batek legegintza-ekimena edo erregelamenduak egiteko ahala baliatzea erregulatzen duen araudiak aurreikusten badu prozedura horiek presaz izapidetu behar direla, araudi horrek agintzen duenari jarraituko zaio, arrazoi horrengatik izapidea salbuetsi nahi bada.

Kontuan izan behar da Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiak artikulu hau eskumenen konstituzio-ordenaren aurkakotzat jo duela 7 b) oinarri juridikoaren terminoetan, bai eta 7 c) oinarri juridikoaren terminoetan ere, salbu eta lehenengo apartatuko «Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da» tartekia eta 4. apartatuko lehenengo paragrafoa.

Erref. BOE-A-2018-8574
https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-8574

cuantas aportaciones adicionales puedan hacerse por otras personas o entidades.

Asimismo, podrá también recabarse directamente la opinión de las organizaciones o asociaciones reconocidas por ley que agrupen o representen a las personas cuyos derechos o intereses legítimos se vieren afectados por la norma y cuyos fines guarden relación directa con su objeto.

3. La consulta, audiencia e información públicas reguladas en este artículo deberán realizarse de forma tal que los potenciales destinatarios de la norma y quienes realicen aportaciones sobre ella tengan la posibilidad de emitir su opinión, para lo cual deberán ponerse a su disposición los documentos necesarios, que serán claros, concisos y reunir toda la información precisa para poder pronunciarse sobre la materia.

4. Podrá prescindirse de los trámites de consulta, audiencia e información públicas previstos en este artículo en el caso de normas presupuestarias u organizativas de la Administración General del Estado, la Administración autonómica, la Administración local o de las organizaciones dependientes o vinculadas a éstas, o cuando concurran razones graves de interés público que lo justifiquen.

Cuando la propuesta normativa no tenga un impacto significativo en la actividad económica, no imponga obligaciones relevantes a los destinatarios o regule aspectos parciales de una materia, podrá omitirse la consulta pública regulada en el apartado primero.

Si la normativa reguladora del ejercicio de la iniciativa legislativa o de la potestad reglamentaria por una Administración prevé la tramitación urgente de estos procedimientos, la eventual excepción del trámite por esta circunstancia se ajustará a lo previsto en aquella.

Téngase en cuenta que este artículo se declara contrario al orden constitucional de competencias en los términos del fundamento jurídico 7 b) y, salvo el inciso de su apartado primero «Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública» y el primer párrafo de su apartado 4, en los términos del fundamento jurídico 7 c), por Sentencia del TC 55/2018, de 24 de mayo.

Ref. BOE-A-2018-8574
https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-8574

Lehen xedapen gehigarria.
Gaiaren ondoriozko berezitasunak.

1. Gaia dela-eta bereziak diren legeetan erregulatutako administrazio-prozedurek, lege honetan aurreikusitako izapideetako bat eskatzen ez badute edo izapide gehigarriak edo bestelakoak erregulatzen badituzte, lege berezi horietan xedatutakoari jarraituko diote.

2. Honako jarduketa eta prozedura hauek araudi espezifikoari jarraituko diote eta, modu osagarrian, lege honetan xedatutakoari.

a) Tributu- eta aduana-gaietan tributuak aplikatzeari buruzko jarduketak eta prozedurak, eta halaber haiek administrazio-bidean berrikustea.

b) Gizarte Segurantzaren eta Langabeziaren gaietako kudeaketa, ikuskaritza, likidazio, diru-bilketa, aurkaratze eta berrikuspenari buruzko jarduketak eta prozedurak.

c) Tributu- eta aduana-gaietako, lan-arloko, trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloko eta atzerritartasunaren arloko jarduketak eta zehapen-prozedurak.

d) Atzerritartasun- eta asilo-gaietako jarduketak eta prozedurak.

Bigarren xedapen gehigarria.
Autonomia-erkidegoak eta toki-entitateak Estatuaren Administrazio Orokorraren plataforma eta erregistroetara atxikitzea.

Ahalordetzeen erregistro elektronikoari, erregistro elektronikoari, artxibo elektroniko bakarrari, datu-bitartekaritzako plataformari eta Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrari buruz aurreikusitakoa betetzeko, autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek aukera izango dute beren borondatez eta bitarteko elektronikoz atxikitzeko hartarako Estatuaren Administrazio Orokorrak ezarritako plataforma eta erregistroetara.

Ez atxikitzea efizientzia-irizpideetan oinarrituta justifikatu beharko dute, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7. artikuluaren arabera.

Autonomia-erkidego batek edo toki-entitate batek Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren aurrean justifikatzen badu modu efizienteago batean eman dezakeela zerbitzua,

Disposición adicional primera.
Especialidades por razón de materia.

1. Los procedimientos administrativos regulados en leyes especiales por razón de la materia que no exijan alguno de los trámites previstos en esta Ley o regulen trámites adicionales o distintos se regirán, respecto a éstos, por lo dispuesto en dichas leyes especiales.

2. Las siguientes actuaciones y procedimientos se regirán por su normativa específica y supletoriamente por lo dispuesto en esta Ley:

a) Las actuaciones y procedimientos de aplicación de los tributos en materia tributaria y aduanera, así como su revisión en vía administrativa.

b) Las actuaciones y procedimientos de gestión, inspección, liquidación, recaudación, impugnación y revisión en materia de Seguridad Social y Desempleo.

c) Las actuaciones y procedimientos sancionadores en materia tributaria y aduanera, en el orden social, en materia de tráfico y seguridad vial y en materia de extranjería.

d) Las actuaciones y procedimientos en materia de extranjería y asilo.

Disposición adicional segunda.
Adhesión de las Comunidades Autónomas y Entidades Locales a las plataformas y registros de la Administración General del Estado.

Para cumplir con lo previsto en materia de registro electrónico de apoderamientos, registro electrónico, archivo electrónico único, plataforma de intermediación de datos y punto de acceso general electrónico de la Administración, las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales podrán adherirse voluntariamente y a través de medios electrónicos a las plataformas y registros establecidos al efecto por la Administración General del Estado.

Su no adhesión, deberá justificarse en términos de eficiencia conforme al artículo 7 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.

En el caso que una Comunidad Autónoma o una Entidad Local justifique ante el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas que puede prestar el servicio de un modo más eficiente, de

aurreko paragrafoan adierazitako irizpideen arabera, eta erabakitzen badu bere erregistro edo plataformari eustea, aipatutako administrazioek bermatu beharko dute betetzen dituela Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren eta Segurtasunaren Eskema Nazionalaren betekizunak eta haren garapen-arau teknikoak, halako moldez non bermatuko baita haren bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa, eta orobat dagozkion erregistro eta plataformetan egiten diren eskaera, idazki eta komunikazioen transmisio telematikoa.

Kontuan izan behar da Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiak deklaratu duela bigarren paragrafoa ez dela Konstituzioaren aurkakoa, epai horren 11 f) oinarri juridikoaren terminoetan interpretatuta.

Erref. BOE-A-2018-8574
https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-8574

Hirugarren xedapen gehigarria.
Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidezko jakinarazpena.

1. Estatuko Aldizkari Ofizialak bidalketa eta kudeaketa telematikorako sistema automatizatu bat jarriko du administrazio publikoen esku, haren bitartez argitaratzeko lege honen 44. artikuluan eta xedapen gehigarri honetan aurreikusitako jakinarazpen-iragarkiak.

Sistema horrek lege honetan eta Legea garatzeko araudian ezarritakoa bete beharko du, eta bermatu beharko du argitalpenaren bizkortasuna, iragarkiaren txertatze egoki eta leiala, eta organo igorlearen identifikazioa.

2. Araudi espezifikoa duten administrazio-prozeduren kasuan, lege honen 44. artikuluan aurreikusitako kasuak gertatzen badira, jakinarazpena beti Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez egingo da, hargatik eragotzi gabe aurrez eta aukera moduan araudi espezifiko horretan aurreikusitako eran egitea.

3. Aurreko bi paragrafoetan aipatzen diren iragarkiak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzean, hori eskatzen dutenek ez dute ezer ordaindu behar.

Laugarren xedapen gehigarria.

acuerdo con los criterios previstos en el párrafo anterior, y opte por mantener su propio registro o plataforma, las citadas Administraciones deberán garantizar que éste cumple con los requisitos del Esquema Nacional de Interoperabilidad, el Esquema Nacional de Seguridad, y sus normas técnicas de desarrollo, de modo que se garantice su compatibilidad informática e interconexión, así como la transmisión telemática de las solicitudes, escritos y comunicaciones que se realicen en sus correspondientes registros y plataformas.

Téngase en cuenta que se declara que el párrafo segundo no es inconstitucional interpretado en los términos del fundamento jurídico 11 f) por Sentencia del TC 55/2018, de 24 de mayo.

Ref. BOE-A-2018-8574
https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-8574

Disposición adicional tercera.
Notificación por medio de anuncio publicado en el «Boletín Oficial del Estado».

1. El «Boletín Oficial del Estado» pondrá a disposición de las diversas Administraciones Públicas, un sistema automatizado de remisión y gestión telemática para la publicación de los anuncios de notificación en el mismo previstos en el artículo 44 de esta Ley y en esta disposición adicional.

Dicho sistema, que cumplirá con lo establecido en esta Ley, y su normativa de desarrollo, garantizará la celeridad de la publicación, su correcta y fiel inserción, así como la identificación del órgano remitente.

2. En aquellos procedimientos administrativos que cuenten con normativa específica, de concurrir los supuestos previstos en el artículo 44 de esta Ley, la práctica de la notificación se hará, en todo caso, mediante un anuncio publicado en el «Boletín Oficial del Estado», sin perjuicio de que previamente y con carácter facultativo pueda realizarse en la forma prevista por dicha normativa específica.

3. La publicación en el «Boletín Oficial del Estado» de los anuncios a que se refieren los dos párrafos anteriores se efectuará sin contraprestación económica alguna por parte de quienes la hayan solicitado.

Disposición adicional cuarta.

Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak.

Administrazio publikoek etengabe eguneraturik eduki behar dute, dagokion egoitza elektronikoan, direktorio geografiko bat, interesdunari ahalbidetuko diona bere egoitzatik gertuen duen erregistro-gaietan laguntzeko bulegoa zein den jakitea.

Bosgarren xedapen gehigarria.
Estatuko organo konstituzionalen eta autonomia-erkidegoetako legegintza- eta kontrol-organo autonomikoen administrazio-jarduketa.

Diputatuen Kongresuko, Senatuko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko, Kontuen Auzitegiko, Herriaren Defendatzaileko, autonomia-erkidegoetako legebiltzarretako eta Kontuen Auzitegiaren eta Herriaren Defendatzailearen gisako autonomia-erakundeetako organo eskudunen administrazio-jarduketak haien araudi espezifikoari jarraituko dio, lege honen arabera administrazio-jarduketa oinarritzen duten printzipioen esparruan.

Seigarren xedapen gehigarria.
9.2.c) eta 10.2.c) artikuluetan aurreikusitako identifikazio- eta sinadura-sistemak.

1. Lege honen 9.2.c) eta 10.2.c) artikuluetan xedatutakoa gorabehera, interesdunen eta lege honen aplikazio-eremuko subjektuen arteko harremanetan ez dira inola ere onargarriak izango eta, beraz, ezingo dira baimendu erregistro banatuko teknologietan oinarritutako identifikazio-sistemak eta azken horietan oinarritutako sinadura-sistemak, harik eta Estatuak berariaz haiek arautu arte Europar Batasuneko zuzenbidearen esparruan.

2. Edonola ere, aurreko apartatuan aipatu bezala Estatuko legeriak inoiz baimentzen badu erregistro banatuko teknologian oinarritutako identifikazio-sistemarik, sistema horrek kontuan hartuko du Estatuaren Administrazio Orokorrak bitarteko agintaritza gisa jardungo duela eta dagozkion eginkizunak beteko dituela segurtasun publikoa bermatzeko.

Zazpigarren xedapen gehigarria.
Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusiak lege honen 9.2.c) eta 10.2.c) artikuluetan aurreikusitako baimenak direla eta, haiek ukatzen dituen ebazpenik ematen bada, ebazpen horien berri emango dio Segurtasun Nazionaleko Gaietarako Konferentzia Sektorialari,

Oficinas de asistencia en materia de registros.

Las Administraciones Públicas deberán mantener permanentemente actualizado en la correspondiente sede electrónica un directorio geográfico que permita al interesado identificar la oficina de asistencia en materia de registros más próxima a su domicilio.

Disposición adicional quinta.
Actuación administrativa de los órganos constitucionales del Estado y de los órganos legislativos y de control autonómicos.

La actuación administrativa de los órganos competentes del Congreso de los Diputados, del Senado, del Consejo General del Poder Judicial, del Tribunal Constitucional, del Tribunal de Cuentas, del Defensor del Pueblo, de las Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas y de las instituciones autonómicas análogas al Tribunal de Cuentas y al Defensor del Pueblo, se regirá por lo previsto en su normativa específica, en el marco de los principios que inspiran la actuación administrativa de acuerdo con esta Ley.

Disposición adicional sexta.
Sistemas de identificación y firma previstos en los artículos 9.2 c) y 10.2 c).

1. No obstante lo dispuesto en los artículos 9.2 c) y 10.2 c) de la presente Ley, en las relaciones de los interesados con los sujetos sometidos al ámbito de aplicación de esta Ley, no serán admisibles en ningún caso y, por lo tanto, no podrán ser autorizados, los sistemas de identificación basados en tecnologías de registro distribuido y los sistemas de firma basados en los anteriores, en tanto que no sean objeto de regulación específica por el Estado en el marco del Derecho de la Unión Europea.

2. En todo caso, cualquier sistema de identificación basado en tecnología de registro distribuido que prevea la legislación estatal a que hace referencia el apartado anterior deberá contemplar asimismo que la Administración General del Estado actuará como autoridad intermedia que ejercerá las funciones que corresponda para garantizar la seguridad pública.

Disposición adicional séptima.
La Secretaría General de Administración Digital del Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital informará a la Conferencia Sectorial para asuntos de Seguridad Nacional de las resoluciones denegatorias de la autorización prevista en los artículos 9.2.c) y 10.2.c) de esta ley, que, en su caso, se hayan dictado en el plazo

ebazpen ukatzailea eman eta gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Zortzigarren xedapen gehigarria.
Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusiaren ebazpenak, identifikazio-sistemak edo sinadura ez-kriptografikokoak erabiltzeko baldintzak ezartzen dituztenak.

Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusiaren ebazpen bidez ezarritako sistemak helburua badu zehaztea zer baldintza bete behar dituen bere eskumen-esparruaren barruan ziurtagiri elektronikoetan oinarritzen ez den sinadura elektronikoko sistema batek baliozkotzat joa izateko, interesdunek Estatuaren Administrazio Orokorreko administrazio-organoekin, haren organismo publikoekin eta haren mendean edo haiekin lotuta dauden zuzenbide publikoko entitateekin dituzten harremanei dagokienez, ez da beharrezkoa izango lege honen 10.2.c) artikuluan sistemaren efikazia juridikorako aipatzen den bi hilabeteko epea igarotzea, eta eraginkortasun juridikoa izango du ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, non eta han ez den besterik xedatzen.

Bederatzigarren xedapen gehigarria.
Babes zibileko larrialdietan kalte astunak jasotako eremuak izendatzeko erabakietan administrazio-epeak etetea.

Babes zibileko larrialdi batean kalte astunak jaso dituen eremu bat deklaratzen duen Ministro Kontseiluaren erabakiak, Babes Zibileko Sistema Nazionalaren uztailaren 9ko 17/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusiak, sektore publikoko administrazio-prozeduren izapideak betetzeko epeak etetea ezarri ahal izango du, baldin eta erabakiaren aplikazio-eremuko udal-mugarteetan bizi diren interesdunei eragiten badiete izapide horiek, eta, hala badagokio, larrialdiaren ondorioz erabakia betetzea ezinezkoa edo garestiegia dela egiaztatzen duten beste interesdun batzuei badagozkie.

Eteteak iraungo du harik eta Ministro Kontseiluak neurriaren amaiera aginduz beste erabaki bat hartzen duen arte, eta, horren ondoren, etendako epeei berrekingo zaie.

Lehen xedapen iragankorra.
Dokumentuak artxibatzea.

máximo de tres meses desde la adopción de la citada resolución.

Disposición adicional octava.
Resoluciones de Secretaría General de Administración Digital del Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital que establezcan las condiciones de uso de sistemas de identificación y/o firma no criptográfica.

Cuando se trate de sistemas establecidos por medio de Resolución de la Secretaría General de Administración Digital del Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital para su ámbito competencial con objeto de determinar las circunstancias en las que un sistema de firma electrónica no basado en certificados electrónicos será considerado como válido en las relaciones de los interesados con los órganos administrativos de la Administración General del Estado, sus organismos públicos y entidades de Derecho Público vinculados o dependientes, no será preciso el transcurso del plazo de dos meses para la eficacia jurídica del sistema a que se refiere el artículo 10.2.c) de la presente ley, adquiriendo eficacia jurídica al día siguiente de la publicación de la Resolución, salvo que esta disponga otra cosa.

Disposición adicional novena.
Suspensión de plazos administrativos en los acuerdos de declaración de zonas afectadas gravemente por emergencias de protección civil.

El acuerdo de Consejo de Ministros por el que se declare una zona afectada gravemente por una emergencia de protección civil, previsto en el artículo 23 de la Ley 17/2015, de 9 de julio, del Sistema Nacional de Protección Civil, podrá establecer la suspensión de los plazos para el cumplimiento de los trámites de los procedimientos administrativos del sector público que correspondan a los interesados residentes en los términos municipales incluidos en el ámbito de aplicación del acuerdo y, en su caso, a aquellos otros interesados que acrediten el carácter imposible o gravoso de su cumplimiento en atención a los efectos de la emergencia.

La suspensión se mantendrá hasta el momento en que se dicte un nuevo acuerdo de Consejo de Ministros decretando la finalización de esta medida, tras lo cual se reanudarán los plazos suspendidos.

Disposición transitoria primera.
Archivo de documentos.

1. Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako administrazio-prozedurei dagozkien dokumentuak artxibatzeari dagokionez, aurreko araudian ezarritakoari jarraituko zaio.

2. Lege hau indarrean jarri baino lehen amaitutako administrazio-prozedurei lotutako paperezko dokumentuak, ahal den guztietan, digitalizatu egin behar dira, aplikatzekoa den araudi erregulatzailean ezarritako betekizunen arabera.

Bigarren xedapen iragankorra.
Erregistro elektronikoa eta artxibo elektroniko bakarra.

Erregistro elektronikoari eta artxibo elektroniko bakarrari buruzko xedapenak indarrean jartzen ez diren bitartean, erregela hauek aplikatuko dira Estatuaren Administrazio Orokorraren eremuan.

a) Legea indarrean jarri ondorengo lehen urtean, indarrean jartzen denean dauden erregistro eta artxiboak mantendu ahal izango dira.

b) Legea indarrean jarri ondorengo bigarren urtean, gehienez ere erregistro elektroniko bat eta artxibo elektroniko bat izango da ministerio bakoitzeko, eta erregistro elektroniko bat organismo publiko bakoitzeko.

Hirugarren xedapen iragankorra.
Prozeduren araubide iragankorra.

a) Legea indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie Legea aplikatuko, eta, beraz, aurreko araudiari jarraituko zaio halakoetan.

b) Legea indarrean jarri ondoren hasitako ofizioz berrikusteko prozedurak Legean ezarritako moduan bideratuko dira.

c) Legea indarrean jarri ondoren emandako egintza eta ebazpenek Legean ezarritako errekurtso-araubidea izango dute.

d) Legea indarrean jartzean betearazteko dauden egintza eta ebazpenek, betearazpenari dagokionez, eman zirenean indarrean zen araudiari jarraituko diote.

e) Dagozkion lege- eta erregelamendu-xedapenetan aurreikuspen espresurik ez bada, administrazio-prozeduraren arloan sortzen diren

1. El archivo de los documentos correspondientes a procedimientos administrativos ya iniciados antes de la entrada en vigor de la presente Ley, se regirán por lo dispuesto en la normativa anterior.

2. Siempre que sea posible, los documentos en papel asociados a procedimientos administrativos finalizados antes de la entrada en vigor de esta Ley, deberán digitalizarse de acuerdo con los requisitos establecidos en la normativa reguladora aplicable.

Disposición transitoria segunda.
Registro electrónico y archivo electrónico único.

Mientras no entren en vigor las previsiones relativas al registro electrónico y el archivo electrónico único, en el ámbito de la Administración General del Estado se aplicarán las siguientes reglas:

a) Durante el primer año, tras la entrada en vigor de la Ley, podrán mantenerse los registros y archivos existentes en el momento de la entrada en vigor de esta ley.

b) Durante el segundo año, tras la entrada en vigor de la Ley, se dispondrá como máximo, de un registro electrónico y un archivo electrónico por cada Ministerio, así como de un registro electrónico por cada Organismo público.

Disposición transitoria tercera.
Régimen transitorio de los procedimientos.

a) A los procedimientos ya iniciados antes de la entrada en vigor de la Ley no les será de aplicación la misma, rigiéndose por la normativa anterior.

b) Los procedimientos de revisión de oficio iniciados después de la entrada en vigor de la presente Ley se sustanciarán por las normas establecidas en ésta.

c) Los actos y resoluciones dictados con posterioridad a la entrada en vigor de esta Ley se regirán, en cuanto al régimen de recursos, por las disposiciones de la misma.

d) Los actos y resoluciones pendientes de ejecución a la entrada en vigor de esta Ley se regirán para su ejecución por la normativa vigente cuando se dictaron.

e) A falta de previsiones expresas establecidas en las correspondientes disposiciones legales y reglamentarias, las cuestiones de Derecho

zuzenbide iragankorreko arazoak aurreko apartatuetan ezarritako printzipioen arabera ebatziko dira.

transitorio que se susciten en materia de procedimiento administrativo se resolverán de acuerdo con los principios establecidos en los apartados anteriores.

Laugarren xedapen iragankorra.
Artxiboen, erregistroen eta irispide-puntu orokorraren araubide iragankorra.

Disposición transitoria cuarta.
Régimen transitorio de los archivos, registros y punto de acceso general.

Ahalordetzeen erregistro elektronikoari, erregistro elektronikoari, Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrari eta artxibo elektroniko bakarrari buruzko xedapenak indarrean jartzen ez diren bitartean, administrazio publikoek gai horiei buruz indarrean diren kanal, bitarteko edo sistema elektroniko berak mantenduko dituzte, pertsonek administrazioekiko harremana elektronikoki izateko duten eskubidea bermatzeko.

Mientras no entren en vigor las previsiones relativas al registro electrónico de apoderamientos, registro electrónico, punto de acceso general electrónico de la Administración y archivo único electrónico, las Administraciones Públicas mantendrán los mismos canales, medios o sistemas electrónicos vigentes relativos a dichas materias, que permitan garantizar el derecho de las personas a relacionarse electrónicamente con las Administraciones.

Bosgarren xedapen iragankorra.
Arau bat Konstituzioaren kontrako edo Europar Batasuneko zuzenbidearen kontrako deklaratzetik eratorritako ondare-erantzukizuneko prozedura.

Disposición transitoria quinta.
Procedimientos de responsabilidad patrimonial derivados de la declaración de inconstitucionalidad de una norma o su carácter contrario al Derecho de la Unión Europea.

Arau bat Konstituzioaren kontrakoa edo Europar Batasuneko zuzenbidearen kontrakoa deklaratzetik eratorritako ondare-erantzukizuneko administrazio-prozedurak, lege hau indarrean jarri aurretik hasita badaude, hasi zirenean indarrean zen araudiaren arabera ebatziko dira.

Los procedimientos administrativos de responsabilidad patrimonial derivados de la declaración de inconstitucionalidad de una norma o su carácter contrario al Derecho de la Unión Europea iniciados con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ley, se resolverán de acuerdo con la normativa vigente en el momento de su iniciación.

Xedapen indargabetzaile bakarra.
Arau-indargabetzea.

Disposición derogatoria única.
Derogación normativa.

1. Indargabeturik geratzen dira lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden edo haren aurka doazen maila bereko edo apalagoko arauak.

1. Quedan derogadas todas las normas de igual o inferior rango en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en la presente Ley.

2. Espresuki indargabeturik geratzen dira xedapen hauek:

2. Quedan derogadas expresamente las siguientes disposiciones:

a) 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

a) Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

b) 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa.

b) Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos.

c) Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 4. artikulutik 7.era bitartekoak.

c) Los artículos 4 a 7 de la Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible.

d) 429/1993 Errege Dekretua, martxoaren 26koa, administrazio publikoek ondare-erantzukizunaren

d) Real Decreto 429/1993, de 26 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de los

arloan dituzten prozeduren erregelamendua onesten duena.

e) 1398/1993 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Zehatzeko Ahala Baliatzeko Prozeduraren Erregelamendua onesten duena.

f) 772/1999 Errege Dekretua, maiatzaren 7koa, zeinaren bidez arautzen baita Estatuaren Administrazio Orokorraren aurrean eskaerak eta idazkiak eta komunikazioak aurkeztea, dokumentuen kopiak egitea eta jatorrizkoak bueltatzea eta erregistro-bulegoen araubidea.

g) Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea partez garatzen duen azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretutik: 2.3, 10., 13., 14., 15., 16., 26., 27., 28., 29.1.a), 29.1.d), 31., 32., 33., 35., 36., 39., 48. eta 50. artikuluak, lehen xedapen gehigarriaren 1., 2. eta 4. apartatuak, hirugarren xedapen gehigarria, lehen xedapen iragankorra, bigarren xedapen iragankorra, hirugarren xedapen iragankorra eta laugarren xedapen iragankorra.

Lege honen azken xedapenetako zazpigarrenak dioenaren arabera ahalordetzeen erregistro elektronikoari, erregistro elektronikoari, Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrari eta artxibo elektroniko bakarrari buruzko xedapenek ondorioak izaten dituzten bitartean, indarrean jarraituko dute aipatutako gaiei buruz a), b) eta g) letretan aurreikusitako arauen artikuluek.

3. Espresuki indargabetutako xedapenei buruz indarrean dauden arauetan egindako aipamenak lege honetan arlo hori bera arautzen duten xedapenei egindakotzat hartu behar dira.

Azken xedapenetako lehena.
Eskumen-titulua.

1. Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan xedatutakoaren babesean onetsi da, zeinak Estatuari eskumena esleitzen baitio administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak emateko, eta orobat esleitzen baitio eskumena administrazio-prozedura erkidearen eta administrazio publiko guztien erantzukizun-sistemaren gaian.

2. (Deuseztatua)

3. Estatuaren Administrazio Orokorrari soilik aplikatzekoak izango dira 92. artikuluaren lehenengo paragrafoan, 111. artikuluan eta 114.2 artikuluan eta bigarren xedapen iragankorrean

procedimientos de las Administraciones Públicas en materia de responsabilidad patrimonial.

e) Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento del Procedimiento para el Ejercicio de la Potestad Sancionadora.

f) Real Decreto 772/1999, de 7 de mayo, por el que se regula la presentación de solicitudes, escritos y comunicaciones ante la Administración General del Estado, la expedición de copias de documentos y devolución de originales y el régimen de las oficinas de registro.

g) Los artículos 2.3, 10, 13, 14, 15, 16, 26, 27, 28, 29.1.a), 29.1.d), 31, 32, 33, 35, 36, 39, 48, 50, los apartados 1, 2 y 4 de la disposición adicional primera, la disposición adicional tercera, la disposición transitoria primera, la disposición transitoria segunda, la disposición transitoria tercera y la disposición transitoria cuarta del Real Decreto 1671/2009, de 6 de noviembre, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos.

Hasta que, de acuerdo con lo dispuesto en la disposición final séptima, produzcan efectos las previsiones relativas al registro electrónico de apoderamientos, registro electrónico, punto de acceso general electrónico de la Administración y archivo único electrónico, se mantendrán en vigor los artículos de las normas previstas en las letras a), b) y g) relativos a las materias mencionadas.

3. Las referencias contenidas en normas vigentes a las disposiciones que se derogan expresamente deberán entenderse efectuadas a las disposiciones de esta Ley que regulan la misma materia que aquéllas.

Disposición final primera.
Título competencial.

1. Esta Ley se aprueba al amparo de lo dispuesto en el artículo 149.1.18.ª de la Constitución Española, que atribuye al Estado la competencia para dictar las bases del régimen jurídico de las Administraciones Públicas y competencia en materia de procedimiento administrativo común y sistema de responsabilidad de todas las Administraciones Públicas.

2. (Anulado)

3. Lo previsto en los artículos 92 primer párrafo, 111, 114.2 y disposición transitoria segunda, serán de aplicación únicamente a la Administración General del Estado, así como el

aurreikusitakoa, eta orobat aplikazio-eremu esklusibotzat Estatuaren Administrazio Orokorra aipatzen duten manuen gainerako atalak.

Azken xedapenetako bigarrena.
Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legea aldatzea.

Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean, 3. artikuluari 11. apartatua gehitzen zaio, honela idatzia:

«11. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean jasota dauden identifikaziorako eta sinadura elektronikorako sistema guztiek ondorio juridiko beteak izango dituzte.»

Azken xedapenetako hirugarrena.
Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legea aldatzea.

Honela idatzita geratzen da 36/2011 Legea, urriaren 10ekoa, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duena:

Bat.

Honela idatzita geratzen da 64. artikulua:

«64. artikulua. Salbuespenak aurretiazko adiskidetzean edo bitartekaritzan.

1. Adiskidetze-ahaleginetik edo, hala badagokio, bitartekaritzatik salbuetsita geratzen dira administrazio-bidea agortzea eskatzen duten prozesuak; Gizarte Segurantzari buruzkoak; langileen ordezkariek kaleratze kolektiboa aurkaratzeari buruzkoak; oporrei buruzkoak eta hauteskunde-gaiak; mugigarritasun geografikoa; lan-baldintzen aldaketa funtsezkoak; arrazoi ekonomiko, tekniko, antolakuntzako edo ekoizpenekoengatik edo ezinbestezko arrazoiengatik kontratua etetea eta lanaldia murriztea; 139. artikuluan jasotako bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko eskubideak; ofizioz hasitakoak; hitzarmen kolektiboak aurkaratzekoak; sindikatuen estatutuak edo haien aldaketak aurkaratzeari buruzkoak; oinarrizko askatasunen eta askatasun publikoen babesa; arbitraje-laudoak deuseztatzeko prozesuak; adiskidetze-, bitartekaritza- eta transakzio-akordioak aurkaratzekoak, eta orobat genero-indarkeriatik babesteko lan-arloko akzioak baliatzen direnekoak.

resto de apartados de los distintos preceptos que prevén su aplicación exclusiva en el ámbito de la Administración General del Estado.

Disposición final segunda.
Modificación de la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.

En la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica, se incluye un nuevo apartado 11 en el artículo 3 con la siguiente redacción:

«11. Todos los sistemas de identificación y firma electrónica previstos en la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público tendrán plenos efectos jurídicos.»

Disposición final tercera.
Modificación de la Ley 36/2011, de 10 de octubre, reguladora de la jurisdicción social.

La Ley 36/2011, de 10 de octubre, reguladora de la jurisdicción social, queda redactada en los siguientes términos:

Uno.

El artículo 64 queda redactado como sigue:

«Artículo 64. Excepciones a la conciliación o mediación previas.

1. Se exceptúan del requisito del intento de conciliación o, en su caso, de mediación los procesos que exijan el agotamiento de la vía administrativa, en su caso, los que versen sobre Seguridad Social, los relativos a la impugnación del despido colectivo por los representantes de los trabajadores, disfrute de vacaciones y a materia electoral, movilidad geográfica, modificación sustancial de las condiciones de trabajo, suspensión del contrato y reducción de jornada por causas económicas, técnicas, organizativas o de producción o derivadas de fuerza mayor, derechos de conciliación de la vida personal, familiar y laboral a los que se refiere el artículo 139, los iniciados de oficio, los de impugnación de convenios colectivos, los de impugnación de los estatutos de los sindicatos o de su modificación, los de tutela de los derechos fundamentales y libertades públicas, los procesos de anulación de laudos arbitrales, los de impugnación de acuerdos de conciliaciones, de mediaciones y de transacciones, así como aquellos en que se ejerciten acciones laborales de protección contra la violencia de género.

2. Salbuetsita geratzen dira orobat:

a) Alderdi demandatua Estatua edo beste ente publiko bat izanik, pertsona pribatuak ere demandatuak diren prozesuak, baldin eta uzia administrazio-bidea agortu beharrekoa bada eta bide horretan erabaki baliteke auzia.

b) Prozesuaren edozein unetan, demanda edo adiskidetze-orria pertsona jakin batzuengana zuzendu ondoren, hasieran demandatutakoez beste pertsona batzuei zuzendu edo zabaldu behar zaien kasuak.

3. Baliatutako uziaren izaeragatik efikazia juridikoa izan badezake lor litekeen adiskidetze- edo bitartekaritza-akordioak, nahiz eta prozesua salbuetsita egon aipatutako aurretiazko ahaleginaren betekizunetik, alderdiek garai egokian jotzen badute borondatez eta elkarren adostasunez halako aurretiazko bideetara, eten egingo dira iraungitze-epeak edo geldiarazi egingo dira preskripzio-epeak, hurrengo artikuluan ezarritako moduan.»

Bi.

Honela idatzita geratzen da 69. artikulua:

«69. artikulua. Lan-arloko auzibidearen aurreko administrazio-bidea agortzea.

1. Estatua, autonomia-erkidegoak, toki-entitateak edo haiei lotutako edo haien mendeko zuzenbide publikoko entitate nortasun juridiko propiodunak demandatzeko, bete beharreko betekizuna da aurrez administrazio-bidea agortzea, hala dagokionean, aplikatzekoa den administrazio-prozeduraren araudian ezarritakoaren arabera.

Edonola ere, administrazio publikoak interesdunei jakinarazi beharko dizkie haien eskubide eta interesei eragiten dieten administrazio-ebazpen eta -egintzak, jakinarazpenean jasorik erabakiaren testu osoa, administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtso jar daitezkeen, zer organori aurkez dakizkiokeen eta zer epetan egin beharko litzatekeen, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteko aukera.

Jakinarazpena egitean egintzaren testu osoa jaso arren bete gabe geratu bada aurreko paragrafoan aipatutako gainerako betekizunetako bat, eten

2. Igualmente, quedan exceptuados:

a) Aquellos procesos en los que siendo parte demandada el Estado u otro ente público también lo fueren personas privadas, siempre que la pretensión hubiera de someterse al agotamiento de la vía administrativa y en ésta pudiera decidirse el asunto litigioso.

b) Los supuestos en que, en cualquier momento del proceso, después de haber dirigido la papeleta o la demanda contra personas determinadas, fuera necesario dirigir o ampliar la misma frente a personas distintas de las inicialmente demandadas.

3. Cuando por la naturaleza de la pretensión ejercitada pudiera tener eficacia jurídica el acuerdo de conciliación o de mediación que pudiera alcanzarse, aun estando exceptuado el proceso del referido requisito del intento previo, si las partes acuden en tiempo oportuno voluntariamente y de común acuerdo a tales vías previas, se suspenderán los plazos de caducidad o se interrumpirán los de prescripción en la forma establecida en el artículo siguiente.»

Dos.

El artículo 69 queda redactado como sigue:

«Artículo 69. Agotamiento de la vía administrativa previa a la vía judicial social.

1. Para poder demandar al Estado, Comunidades Autónomas, entidades locales o entidades de Derecho público con personalidad jurídica propia vinculadas o dependientes de los mismos será requisito necesario haber agotado la vía administrativa, cuando así proceda, de acuerdo con lo establecido en la normativa de procedimiento administrativo aplicable.

En todo caso, la Administración pública deberá notificar a los interesados las resoluciones y actos administrativos que afecten a sus derechos e intereses, conteniendo la notificación el texto íntegro de la resolución, con indicación de si es o no definitivo en la vía administrativa, la expresión de los recursos que procedan, órgano ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que los interesados puedan ejercitar, en su caso, cualquier otro que estimen procedente.

Las notificaciones que conteniendo el texto íntegro del acto omitiesen alguno de los demás requisitos previstos en el párrafo anterior mantendrán

egingo dira iraungitze-epeak eta geldiarazi egingo dira preskripzio-epeak, eta ez dute ondoriorik izango harik eta interesdunak jakinarazpenaren xede den ebazpen edo egintzaren edukia eta irismena zer den badakiela erakusten duen jardueraren bat egiten duen edo egoki den edozein errekurtso jartzen duen arte.

2. Administrazio-bidea amaitutzat jo behar den datatik aurrera, bi hilabeteko epean formalizatu ahal izango du interesdunak demanda, epaitegi edo sala eskudunaren aurrean.

Demandarekin batera aurkeztu behar da ebazpen ezeslearen kopia edo administrazio-errekurtsoa jarri edo ebatzi dela egiaztatzen duen dokumentua, zer dagokion, eta horren guztiaren kopia gehitu behar da entitate demandatuarentzat.

3. Kaleratzeetatik eratorritako akzioetan eta iraungitze-epea duten gainerako akzioetan, demanda jartzeko epea hogei egun baliodunekoa edo aplikatzekoa den berezia izango da, egintza edo aurkaratutako ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbaturik, edo administrazio-bidea agorturik jo behar denetik aurrera gainerako kasuetan.»

Hiru.

Honela idatzita geratzen da 70. artikulua:

«70. artikulua. Salbuespenak administrazio-bidea agortzeari dagokionez.

Ez da beharrezko izango administrazio-bidea agortzea oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen babeserako demanda jarri nahi bada administrazio publikoek lan-arloan eta sindikatuen arloan dituzten ahalak baliatuz gauzatutako egintzen aurka, baina demanda jartzeko epea hogei egunekoa izango da, egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita edo ebazteko ezarritako epea amaitu eta biharamunetik hasita, beste izapiderik gabe. Oinarrizko eskubidearen kaltearen jatorria administrazioaren jarduterik eza edo egitate-bideko jokaera bat bada, edo aukerako administrazio-errekurtso bat jarri bada, hogei eguneko epea jarduterik ezaren edo egitate-bidearen kontrako erreklamaziotik hogei egun igarotakoan hasiko da, edo administrazio-errekurtsoa aurkezten denetik hogei egun igarotakoan.»

Lau.

Honela idatzita geratzen da 72. artikulua:

suspendidos los plazos de caducidad e interrumpidos los de prescripción y únicamente surtirán efecto a partir de la fecha en que el interesado realice actuaciones que supongan el conocimiento del contenido y alcance de la resolución o acto objeto de la notificación o resolución, o interponga cualquier recurso que proceda.

2. Desde que se deba entender agotada la vía administrativa el interesado podrá formalizar la demanda en el plazo de dos meses ante el juzgado o la Sala competente.

A la demanda se acompañará copia de la resolución denegatoria o documento acreditativo de la interposición o resolución del recurso administrativo, según proceda, uniendo copia de todo ello para la entidad demandada.

3. En las acciones derivadas de despido y demás acciones sujetas a plazo de caducidad, el plazo de interposición de la demanda será de veinte días hábiles o el especial que sea aplicable, contados a partir del día siguiente a aquél en que se hubiera producido el acto o la notificación de la resolución impugnada, o desde que se deba entender agotada la vía administrativa en los demás casos.»

Tres.

El artículo 70 queda redactado como sigue:

«Artículo 70. Excepciones al agotamiento de la vía administrativa.

No será necesario agotar la vía administrativa para interponer demanda de tutela de derechos fundamentales y libertades públicas frente a actos de las Administraciones públicas en el ejercicio de sus potestades en materia laboral y sindical, si bien el plazo para la interposición de la demanda será de veinte días desde el día siguiente a la notificación del acto o al transcurso del plazo fijado para la resolución, sin más trámites; cuando la lesión del derecho fundamental tuviera su origen en la inactividad administrativa o en actuación en vías de hecho, o se hubiera interpuesto potestativamente un recurso administrativo, el plazo de veinte días se iniciará transcurridos veinte días desde la reclamación contra la inactividad o vía de hecho, o desde la presentación del recurso, respectivamente.»

Cuatro.

El artículo 72 queda redactado como sigue:

«72. artikulua. Gizarte Segurantzako prestazioen arloko aurretiazko erreklamazio administratiboarekiko edo aurretiazko administrazio-bidearekiko lotura.

Prozesuan, alderdiek ezin izango dute aldaketa funtsezkorik egin administrazio-prozeduraren eta interesdunen edo Administrazioaren jarduketen xede diren denbora, zenbateko edo kontzeptuei buruz, izan Gizarte Segurantzako prestazioen arloko aurretiazko erreklamazioaren fasean edo izan administrazio-bidea agortzen duen errekurtsoaren fasean, ez bada egitate berriei buruz edo lehenago ezin jakin izan ziren batzuei buruz.»

Bost.

Honela idatzita geratzen da 73. artikulua:

«73. artikulua. Aurretiazko erreklamazio administratiboaren ondorioak Gizarte Segurantzako prestazioen gaian.

Gizarte Segurantzako prestazioen alorreko aurretiazko erreklamazioak preskripzio-epeak geldiaraziko ditu, eta iraungitze-epeak eten; bigarren horiek ebazpena jakinarazi ondorengo egunean jarraituko dute, edo hura ezetsitzat ulertu behar den epea igaro ondorengoan.»

Sei.

Honela idatzita geratzen da 85. artikulua:

«85. artikulua. Epaiketa.

1. Adiskidetzean adostasunik ez badago, epaiketara pasatuko da, eta jardundakoaren kontu emango da.

Lehenago ebatziko dira, arrazoiturik, ahoz eta alderdiei entzunik, egintza horretan formula litezkeen aurretiazko arazoak, eta orobat ebazteko dauden errekurtsoak edo bestelako gorabeherak, hargatik eragotzi gabe geroago labur funtsatzea epaian, egoki bada.

Orobat entzungo zaie alderdiei eta, hala badagokio, bidezko ebazpena emango da, arrazoiturik eta ahoz, epaileak edo auzitegiak une horretan bere eskumenaz plantea ditzakeen arazoei buruz, demandaren aurrekontuei edo formulatutako uziaren irismenari eta mugei dagokienez, alderdien berme prozesalak errespetatuz eta gaiaren funtsaz aurrejuzgurik egin gabe.

«Artículo 72. Vinculación respecto a la reclamación administrativa previa en materia de prestaciones de Seguridad Social o vía administrativa previa.

En el proceso no podrán introducir las partes variaciones sustanciales de tiempo, cantidades o conceptos respecto de los que fueran objeto del procedimiento administrativo y de las actuaciones de los interesados o de la Administración, bien en fase de reclamación previa en materia de prestaciones de Seguridad Social o de recurso que agote la vía administrativa, salvo en cuanto a los hechos nuevos o que no hubieran podido conocerse con anterioridad.»

Cinco.

El artículo 73 queda redactado como sigue:

«Artículo 73. Efectos de la reclamación administrativa previa en materia de prestaciones de Seguridad Social.

La reclamación previa en materia de prestaciones de Seguridad Social interrumpirá los plazos de prescripción y suspenderá los de caducidad, reanudándose estos últimos al día siguiente al de la notificación de la resolución o del transcurso del plazo en que deba entenderse desestimada.»

Seis.

El artículo 85 queda redactado como sigue:

«Artículo 85. Celebración del juicio.

1. Si no hubiera avenencia en conciliación, se pasará seguidamente a juicio y se dará cuenta de lo actuado.

Con carácter previo se resolverá, motivadamente, en forma oral y oídas las partes, sobre las cuestiones previas que se puedan formular en ese acto, así como sobre los recursos u otras incidencias pendientes de resolución, sin perjuicio de la ulterior sucinta fundamentación en la sentencia, cuando proceda.

Igualmente serán oídas las partes y, en su caso, se resolverá, motivadamente y en forma oral, lo procedente sobre las cuestiones que el juez o tribunal pueda plantear en ese momento sobre su competencia, los presupuestos de la demanda o el alcance y límites de la pretensión formulada, respetando las garantías procesales de las partes y sin prejuzgar el fondo del asunto.

Gero, demandatzaileak berretsi edo zabaldu egingo du bere demanda; ezein kasutan ezin izango du hartan aldaketa funtsezkorik egin.

A continuación, el demandante ratificará o ampliará su demanda, aunque en ningún caso podrá hacer en ella variación sustancial.

2. Demandatuak demandako egitateak zehazki baieztatuz edo ukatuz erantzungo du, eta egoki deritzen salbuespen guztiak alegatuz.

2. El demandado contestará afirmando o negando concretamente los hechos de la demanda, y alegando cuantas excepciones estime procedentes.

3. Errekonbentzioa formulatzeko aukera izateko, iragarri egin behar da hura prozesuaren aurreko adiskidetzean edo Gizarte Segurantzako prestazioen alorreko aurretiazko erreklamazioaren erantzunean edo administrazio-bidea agortzen duen ebazpenean, eta adierazi bada, funtsean, zer egitatetan oinarritzen den eta zer eskaera zehatz egiten den.

3. Únicamente podrá formular reconvención cuando la hubiese anunciado en la conciliación previa al proceso o en la contestación a la reclamación previa en materia de prestaciones de Seguridad Social o resolución que agote la vía administrativa, y hubiese expresado en esencia los hechos en que se funda y la petición en que se concreta.

Ez da onartuko errekonbentzioa baldin eta: organo judiziala ez bada eskuduna; baliatzen den akzioa bestelako modalitate prozesal batean argitu behar bada eta akzioa ez bada metagarria, eta ez badago loturarik haren uziaren eta demanda nagusiaren xede diren uzien artean.

No se admitirá la reconvención, si el órgano judicial no es competente, si la acción que se ejercita ha de ventilarse en modalidad procesal distinta y la acción no fuera acumulable, y cuando no exista conexión entre sus pretensiones y las que sean objeto de la demanda principal.

Errekonbentzioa ez da beharrezkoa izango zorren konpentsazioa alegatzeko, baldin eta zorrak epez kanpokoak eta exijitu beharrekoak badira eta ez bada errekonbentzio-kondenaren uzirik aurkezten eta, oro har, demandatuak aurkezten duen uziaren xede bakarra demanda nagusiaren gai den uziaren edo uzien absoluzioa jasotzea bada; aski izango da demandaren erantzunean alegatzea.

No será necesaria reconvención para alegar compensación de deudas, siempre que sean vencidas y exigibles y no se formule pretensión de condena reconvencional, y en general cuando el demandado esgrima una pretensión que tienda exclusivamente a ser absuelto de la pretensión o pretensiones objeto de la demanda principal, siendo suficiente que se alegue en la contestación a la demanda.

Betebeharrak epailearen erabakia eskatzen badu, ez delako likidoa, epaiketaren aurretik zehazki adierazi beharko dira salbuespena funtsatzen duten egitateak eta zorra likidatzeko modua, eta, halaber, hura iragarri beharko da aurretiazko adiskidetze edo bitartekaritzan, edo Gizarte Segurantzako prestazioen alorreko erreklamazioan edo administrazio-bidea agortzen duen ebazpenean.

Si la obligación precisa de determinación judicial por no ser líquida con antelación al juicio, será necesario expresar concretamente los hechos que fundamenten la excepción y la forma de liquidación de la deuda, así como haber anunciado la misma en la conciliación o mediación previas, o en la reclamación en materia de prestaciones de Seguridad Social o resolución que agoten la vía administrativa.

Errekonbentzioa aurkeztutakoan, gainerako alderdiei helaraziko zaie, demandan ezarritako moduan erantzun dezaten.

Formulada la reconvención, se dará traslado a las demás partes para su contestación en los términos establecidos para la demanda.

Helarazteko izapide bera erabakiko da salbuespen prozesalei erantzuteko, halakorik alegatzen bada.

El mismo trámite de traslado se acordará para dar respuesta a las excepciones procesales, caso de ser alegadas.

4. Alderdiek hitza hartuko dute epaileak edo auzitegiak beharrezko irizten dion bezainbeste aldiz.

4. Las partes harán uso de la palabra cuantas veces el juez o tribunal lo estime necesario.

5. Era berean, ekitaldi honetan, alderdiek egoki deritzoten guztia alegatu ahal izango dute, 191. artikuluaren 3. apartatuko b) letran xedatutakoari dagokionez, eta beren alegazioak funtsatzeko behar diren irizpen-elementuak eskainiko dituzte une prozesal egokirako.

Ez da frogarik aurkeztu beharrik izango gai jakin horri buruz, prozesuaren izaeragatik nabarmena baldin bada langile edo onuradun askori eragiten diela.

6. Ez bada arazo prozesalik planteatzen edo, planteatu direlarik, dagoeneko erantzun bazaie, alderdiek edo haien defendatzaileek auzitegiarekin finkatuko dute zer egitateren inguruan dagoen auzilarien adostasuna edo desadostasuna. Beharrezko bada, aktan edo hala badagokio eginbidez jasoko da adostasuna dagoen puntuen aipamen laburra, geroagoko errekurtsoen ondorioetarako.

Orobat eskaini ahal izango dituzte alderdiek zenbakizko datuen kalkulu edo laburpen gisako ohar batzuk.

7. Amore-emate oso edo partzialik badago, jurisdikzio-organoak onetsiko du, gainerako alderdiei entzunik, baldin eta ez bada debekaturiko eskubide-ukorik egon, edo lege-iruzurra edo hirugarren batzuentzako kaltea, edo amore ematea ez bada interes publikoaren kontrakoa. Ebazpen bidez erabakiko da, eta ahoz eman ahal izango da ebazpen hori.

Amore-ematea osoa bada, kondena-epaia emango da, auzi-jartzailearen uzien arabera.

Amore-ematea partziala bada, oneste-autoa eman ahal izango da, eta behin betiko betearazpen partzialaren izapideen bitartez gauzatu ahal izango da hura, betiere amore-ematearen xede diren uzien izaeragatik posible bada erabaki bereizi bat ematea amore eman ez den gainerako arazoen aurrejuzgurik egiten ez duena, haiei buruz jarraitu egingo baitu epaiketak.

8. Epaile edo auzitegiak, froga gauzatutakoan baina ondorioak baino lehen, alderdietakoren bat kontra ez badago, proposatu ahal izango du akordio batera iristea, eta akordio hori lortu ezean jarraitu egingo du epaiketak.»

Zazpi.

Honela idatzita geratzen da 103. artikulua:

5. Asimismo, en este acto, las partes podrán alegar cuanto estimen conveniente a efectos de lo dispuesto en la letra b) del apartado 3 del artículo 191, ofreciendo, para el momento procesal oportuno, los elementos de juicio necesarios para fundamentar sus alegaciones.

No será preciso aportar prueba sobre esta concreta cuestión cuando el hecho de que el proceso afecta a muchos trabajadores o beneficiarios sea notorio por su propia naturaleza.

6. Si no se suscitasen cuestiones procesales o si, suscitadas, se hubieran contestado, las partes o sus defensores con el tribunal fijarán los hechos sobre los que exista conformidad o disconformidad de los litigantes, consignándose en caso necesario en el acta o, en su caso, por diligencia, sucinta referencia a aquellos extremos esenciales conformes, a efectos de ulterior recurso.

Igualmente podrán facilitar las partes unas notas breves de cálculo o resumen de datos numéricos.

7. En caso de allanamiento total o parcial será aprobado por el órgano jurisdiccional, oídas las demás partes, de no incurrir en renuncia prohibida de derechos, fraude de ley o perjuicio a terceros, o ser contrario al interés público, mediante resolución que podrá dictarse en forma oral.

Si el allanamiento fuese total se dictará sentencia condenatoria de acuerdo con las pretensiones del actor.

Cuando el allanamiento sea parcial, podrá dictarse auto aprobatorio, que podrá llevarse a efecto por los trámites de la ejecución definitiva parcial, siempre que por la naturaleza de las pretensiones objeto de allanamiento, sea posible un pronunciamiento separado que no prejuzgue las restantes cuestiones no allanadas, respecto de las cuales continuará el acto de juicio.

8. El juez o tribunal, una vez practicada la prueba y antes de las conclusiones, salvo que exista oposición de alguna de las partes, podrá suscitar la posibilidad de llegar a un acuerdo y de no alcanzarse el mismo en ese momento proseguirá la celebración del juicio.»

Siete.

El artículo 103 queda redactado como sigue:

«103. artikulua. Kaleratze-demanda aurkeztea.

1. Langileak kaleratzearen kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango du kaleratzea gertatu ondorengo hogei egun baliodunen barruan.

Epe hori iraungitze-epea izango da ondorio guztietarako, eta ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jurisdikzio-organoaren egoitzan jaiegun direnak.

2. Adiskidetze-papera edo bitartekaritza-eskaera edo kaleratze-demanda jarri bazaio pertsona bati oker baten ondorioz enpresaburutzat jota, eta gerora egiaztatu bada, bai epaiketan edo bai prozesuaren ondorengo uneren batean, hirugarren bat zela enpresaburua, langileak beste demanda bat jarri ahal izango du haren aurka, edo demanda zabaldu ahal izango du epaiketa artean egin gabe badago, eta iraungitze-epearen zenbaketa ez da hasiko harik eta enpresaburua nor den erabaki arte.

3. Kapitulu honetako arauak aplika dakizkieke enpresaburuen kontratu-azkentzeko erabakien aurkaratzeei, behar diren berezitasunekin, hargatik eragotzi gabe 120. artikuluan aurreikusitakoa eta kontratu-azkentze mota bakoitzaren ondorio substantiboak.»

Zortzi.

Honela idatzita geratzen da 117. artikulua:

«117. artikulua. Auzibidearen aurreko administrazio-bidea agortzearen betekizuna.

1. Izapidetze-aldiko soldatengatik Estatua demandatzeko, aurretiazko betekizuna da administrazio-bidean erreklamatzea, ezarritako modu eta epeetan. Erreklamazioa ukatzen bada, enpresaburuak edo, hala badagokio, langileak, dagokion akzioa baliatu dezake kaleratze-prozesuaz auzialdian arduratu zen epaitegiaren aurrean.

2. Demandarekin batera aurkeztu behar da administrazio-ebazpen ezeslearen edo ordainketa-eskaerako orriaren kopia.

3. Akzio horren preskripzio-epea Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 59. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitakoa da, eta epearen zenbaketaren hasiera, enpresaburuak egindako erreklamazioaren kasuan, izapidetze-aldiko soldatak ordaintzeak eragindako ondare-galera jasaten duen unean izango da; langileak

«Artículo 103. Presentación de la demanda por despido.

1. El trabajador podrá reclamar contra el despido, dentro de los veinte días hábiles siguientes a aquél en que se hubiera producido.

Dicho plazo será de caducidad a todos los efectos y no se computarán los sábados, domingos y los festivos en la sede del órgano jurisdiccional.

2. Si se promoviese papeleta de conciliación o solicitud de mediación o demanda por despido contra una persona a la que erróneamente se hubiere atribuido la cualidad de empresario, y se acreditase con posterioridad, sea en el juicio o en otro momento anterior del proceso, que lo era un tercero, el trabajador podrá promover nueva demanda contra éste, o ampliar la demanda si no se hubiera celebrado el juicio, sin que comience el cómputo del plazo de caducidad hasta el momento en que conste quién sea el empresario.

3. Las normas del presente capítulo serán de aplicación a la impugnación de las decisiones empresariales de extinción de contrato con las especialidades necesarias, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 120 y de las consecuencias sustantivas de cada tipo de extinción contractual.»

Ocho.

El artículo 117 queda redactado como sigue:

«Artículo 117. Requisito del agotamiento de la vía administrativa previa a la vía judicial.

1. Para demandar al Estado por los salarios de tramitación, será requisito previo haber reclamado en vía administrativa en la forma y plazos establecidos, contra cuya denegación el empresario o, en su caso, el trabajador, podrá promover la oportuna acción ante el juzgado que conoció en la instancia del proceso de despido.

2. A la demanda habrá de acompañarse copia de la resolución administrativa denegatoria o de la instancia de solicitud de pago.

3. El plazo de prescripción de esta acción es el previsto en el apartado 2 del artículo 59 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, iniciándose el cómputo del mismo, en caso de reclamación efectuada por el empresario, desde el momento en que éste sufre la disminución patrimonial ocasionada por el abono

egindako erreklamazioaren kasuan, berriz, enpresaburua kaudimengabe dela deklaratzen duen auto judiziala jakinarazten zaion data.»

de los salarios de tramitación y, en caso de reclamación por el trabajador, desde la fecha de notificación al mismo del auto judicial que haya declarado la insolvencia del empresario.»

Azken xedapenetako laugarrena.
Arau-erreferentziak

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari egindako erreferentziak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeari egindakotzat joko dira, zer dagokion.

Disposición final cuarta.
Referencias normativas.

Las referencias hechas a la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se entenderán hechas a la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o a la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, según corresponda.

Azken xedapenetako bosgarrena.
Arau-egokitzapenak.

Lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, lege honetan esaten denera egokitu beharko dira lege honetan aurreikusitakoarekin bateraezinak diren Estatuko, erkidegoetako eta tokiko arau-prozeduren erregulazio-arauak.

Disposición final quinta.
Adaptación normativa.

En el plazo de un año a partir de la entrada en vigor de la Ley, se deberán adecuar a la misma las normas reguladoras estatales, autonómicas y locales de los distintos procedimientos normativos que sean incompatibles con lo previsto en esta Ley.

Azken xedapenetako seigarrena.
Legearen arau-garapena.

Ahalmena ematen zaie Ministro Kontseiluari eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroari, zeini bere eskumenen eremuan, lege hau garatzeko beharrezko diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten, eta orobat lege honen aurreikuspenak egiazki betearazteko eta ezartzeko behar diren neurriak erabaki ditzaten.

Disposición final sexta.
Desarrollo normativo de la Ley.

Se faculta al Consejo de Ministros y al Ministro de Hacienda y Administraciones Públicas, en el ámbito de sus competencias, para dictar cuantas disposiciones reglamentarias sean necesarias para el desarrollo de la presente Ley, así como para acordar las medidas necesarias para garantizar la efectiva ejecución e implantación de las previsiones de esta Ley.

Azken xedapenetako zazpigarrena.
Indarrean jartzea.

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera jarriko da indarrean.

Disposición final séptima.
Entrada en vigor.

La presente Ley entrará en vigor al año de su publicación en el “Boletín Oficial del Estado”.

Hala ere, ahalordetzeen erregistro elektronikoari, erregistro elektronikoari, enplegatu publiko gaituen erregistroari, Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrari eta artxibo elektroniko bakarrari buruzko xedapenek 2021eko apirilaren 2tik aurrera izango dituzte ondorioak.

No obstante, las previsiones relativas al registro electrónico de apoderamientos, registro electrónico, registro de empleados públicos habilitados, punto de acceso general electrónico de la Administración y archivo único electrónico producirán efectos a partir del día 2 de abril de 2021.

Beraz,
Espainiar guztiei agintzen diet, partikular zein agintari, lege hau gorde eta gordearaz dezatela.

Por tanto,
Mando a todos los españoles, particulares y autoridades, que guarden y hagan guardar esta ley.

Madrilen, 2015eko urriaren 1ean.
Felipe e.

Madrid, 1 de octubre de 2015.
FELIPE R.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY

El Presidente del Gobierno,
MARIANO RAJOY BREY